



Usurbilgo Udala



## 2014KO URTARRILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.  
Josu Portu Alzaga J.  
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.  
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.  
Enara Arbizu Irurtia A.  
Iñaki Ugarte Aguirre J.  
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.  
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.  
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.  
Miren Josune Urquia Carrera A.  
Andoni Atxega San Sebastian J.  
Ricardo Crespo Rubio J.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin A.

**Kontu-hartzailea:** Lioba Maiza Recondo A.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2014ko urtarrilaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2013/12/17KO EZOHIKO BILKURA.**

Jone Urdampilletak adierazi du zuzenketa bat egin nahi duela. Aktaren 3. orrian, 9. paragrafoan, buru urritasuna jartzen du eta buru-eritasuna da jarri behar duena.

Aurreko zuzenketa kontutan hartuta, batzarkideek, 2013ko abenduaren 17ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala



Alkateak aipatu du onartu berri den aktan jartzen duen bezala, 2014ko Aurrekontuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunez erakusketa publikoan jarri direla erreklamazio edo alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta epe horretan ez dela erreklamazio edo alegaziorik tartekatu, beraz, behin betiko onartuta geratu direla 2014ko Aurrekontuak.

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2013KO AZAROAREN 16TIK 2014KO URTARRILAREN 17RA (2013/1121 – 2014/0058).**

Alkatetzak 2013ko azaroaren 16tik 2014ko urtarrilaren 17ra bitartean (2013/1121-2014/0058) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- 01/2013 ZENBAKIDUN INGERA OHARRAREN BERRI EMATEA.**

01/2013 zenbakidun ingera oharraren berri eman zaie bertaratutakoei.

Alkateak adierazi du aurreko puntuan Alkatetzak 2013ko azaroaren 16tik 2014ko urtarrilaren 17ra bitartean (2013/01121-2014/0058) egin dituen dekretuen berri eman zaiela bertaratutakoei eta horien artean aurkitzen dela ingera oharraren aipamena, beraz ezagutzen dutela.

Luisuari Ormaetxeak galdetu du ea zergatik sartu den ingera oharraren berri ematea puntu berezi bezala gai-zerrendan izan ere orain arte ez dela horrela egin, izatekotan diktamenean bertan txertatu izan dela. Galdetu du ea legea aldatu den zentzu horretan edo orain arte gaizki egin den.

Kontuhartzaileak erantzun dio aurreko kontuhartzaileak ere bere momentuan egin zituela ingera oharrak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 2003ko Foru Arauak xedatutakoari jarraituz eta legeak xedatzen duela arau orokor moduan ingerak ukitzen duen organoa berekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko duela eztabaida eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango dela. Kasu horietan udalbatza osoa jakinaren gainean jarri behar dela eta legearen arabera udalbatza osoko gai-zerrendako puntu independente bat izan beharko duela. Aldiz, ingerak beste mota batzuetakoak direnean (legeak zehazki arautzen dituen kasuak) udalbatzak ebatzi beharko duela eztabaida eta kasu horietan jada zuzenean udalbatza osoa jakinaren gainean egoten dela ebazteko unean.

Idazkariak gaineratu du kontuhartzaileak aipatutakoarekin lotuta udalburuak ingeraren aurka ebatzitako kasuetan udalbatza osoko gai-zerrendako puntu berezia izango dela xedatzen duela zehazki Toki Erakundeen Ogasunen Lege Arautzailearen Testu Bateginak. Udalburuak mota honetako ingeraren aurka ebatzitako lehenengo aldia dela esan du bera udal honetan dagoenetik eta aurretik udalburuak ingeraren aurka ebatzi izan badu legearen baitan udalbatza osoa jakinaren gainean jarri behar zela. Beste



Usurbilgo Udala



gauza bat dela udalbatza osoko gai-zerrenda alkateak egiten duela eta erabaki dezakeela puntua gai-zerrendan ez sartzea eta ez dakiela hori horrela izan ote den.

01/2013 zenbakidun ingera oharraren berri eman zaie bertaratutakoei. Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

#### **4.- IRISGARRITASUNA HOBETZEKO UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ERANTZUTEA ETA ORDENANTZA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

Alkateak Hirigintza batzordeko diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Adierazi du irisgarritasuna hobetzeko ordenantza honek lehendik dauden etxebizitzetara eragiten diela. Hainbat neurri berezi hartzen zirela aipatu du, batez ere jadanik dauden etxebizitzetara horietan igogailu bat jarri ahal izateko.

Jendaurrean egon den bitartean bi alegazio aurkeztu direla aipatu du.

Lehenengo alegazioak dio Irazu kaleko Paris etxearen kasu konkretuan igogailua jartzeko aukera bakarra eskailerak 80 cm.ko zabalerarekin uztea zela eta ordenantzak metro bateko gutxieneko zabalera jartzen zuela eta, ondorioz, ezingo zela etxe horretan igogailurik jarri.

Gaia juridikoki begiratu dela esan du eta txosten juridikoak dio salbuespena onartu daitekeela, zeren legeak ere baimentzen omen du horrelako salbuespenak egitea beste aukerarik ez dagoenean eta segurtasuna hobetzeko neurriekin aurkezten baldin bada.

Halaber, arkitektoak teknikoki esaten duela dio onargarria litzatekeela eta aldeko txostena ematen du. Hala ere, aipatzen du lehen esan dituen neurriak bete behar direla eta gomendatzen du horrelako kasuetan Irisgarritasuneko Euskal Kontseiluari kontsulta egitea.

Bigarren alegazioari dagokionean, honek dio jabari publikoa modu pribatiboan okupatzerakoan Irisgarritasun Dekretuak dioena betetzera baldintzatzen baldin badu ere, etxebizitzetako ondasun partikularrak okupatzean ere legedi berbera erabili beharko litzatekeela.

Alegazio honi dagokionean, bai juridikoki eta baita teknikoki ere alegazioa onartzea planteatu dela adierazi du.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde informatzailearen diktamena aztertu dute eta aho batez onartua izan da, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.02/2013-0452



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udaleko Plenoak, 2013ko urriaren 29an, irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Era berean, ordenantza 30 lan-egunez jendaurrean jartzea erabaki zuen. Erabakiak honela zion:

**LEHENDABIZI:** Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza hasieraz onartzea.

**BIGARRENA:** Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, udal ordenantza jendaurrean jartzea 30 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek berau aztertu, eta hala badagokio, bidezko erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ditzaten.

**HIRUGARRENA:** Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantza behin betiko onartutzat joko da, eta, beraz, Plenoak ez du horren gainean erabaki berririk hartu beharrik izango. Dena den indarrean jartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean udal ordenantzaren testu osoa argitaratu beharko da.

Ordenantza jendaurrean jarri zen 30 lan-egunez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (210. zenbakia): 2013-11-05
- Berria: 2013-11-01
- Gara: 2013-11-01
- El Diario Vasco: 2013-11-05

Jendaurreko epealdiaren amaiera: 2013-12-11. Jendaurreko epealdian, ondoko 2 alegazio aurkeztu dira:

Alegazioa zenbakia	Interesatua	Sarrera Eguna	Zenbakia
1	Montse Padrones Ayuso	2013-11-27	4025
2	Ainhoa Azpiroz eta Zaloa Arnaiz	2013-12-11	4299

## **ALEGAZIOEN ERANTZUNA**

ARAUDI, SLP taldeko Nekane Azarola aholkulari juridikoak, alegazioak aztertu ostean ondoko txostena eman du:

### **TXOSTEN JURIDIKOA**

#### **I. AURREKARIAK**



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udaleko Plenoak, 2013ko urriaren 29an, irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzari hasierako onespena eman zion, ordenantza jendaurrean 30 lan-egunez jarritz.

Alegazioa aurkezteko epea bukatu denez, txosten honen bidez, aurkeztutako alegazioei buruzko txosten juridikoa egin nahi da.

## **II.- AZTERKETA JURIDIKOA.**

Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza jendaurrean egon den bitartean bi alegazio aurkeztu dira, bata, Montse Padrones Ayuso andereak, eta bestea, Ainhoa Azpiroz eta Zalao Arnaiz andereak.

### **a.- Montse Padrones Ayuso andereak aurkeztutako alegazioa.**

Montse Padrones aurkeztutako alegazioan, Irazu kaleko "Paris" etxean igogailua jartzeko aukera bakarra, eskailerak 80 cmko zabalarekin uztea dela adierazten du, eta ondorioz, ordenantzaren 20. artikulua aldatzea proposatzen du, bestela etxe horretan ez litzakeelako igogailurik jartzeko aukerarik egongo.

Eraikuntzaren Kode Teknikoak, eskaileren zabalera oinarrizko bi eranskinetan xedatzen ditu, zehazki, "Documento Básico SI Seguridad en caso de incendio" eta "Documento Básico SUA Seguridad de utilización y accesibilidad" agirietan.

"Documento Básico SI Seguridad en caso de incendio" agiriak 4.2. "Calculo" puntuan ebakuazio elementuen neurriak xedatzen ditu, baina eskaileren gutxieneko zabalera "Documento Básico SUA Seguridad de utilización y accesibilidad" agirian jasotakoa izango dela adierazten du.

"Documento Básico SUA Seguridad de utilización y accesibilidad" agiriak berriz, eskailak izan beharreko ezaugarriak 1.4 atalean xedatzen ditu, erabilera mugatu eta orokorreko eskaileren artean bereizturik. Baina bai kasu batean bai bestean 80 cmko zabalera eskailerak baimentzen ditu.

Zehazki, 4.1. atalean, erabilera mugatuko eskailerak xedatzean honela dio:

*"2 La anchura de cada tramo de escalera será de 0,80 m, como mínimo."*

Eta erabilera orokorreko eskaileren gutxieneko zabalera 4.2.2. atalean jasotzen da, honako hau adieraziz:

*"4 La anchura útil del tramo se determinará de acuerdo con las exigencias de evacuación establecidas en el apartado 4 de la Sección SI 3 del DB-SI y será, como mínimo, la indicada en la tabla 4.1."*



Usurbilgo Udala

Tabla 4.1 Escaleras de uso general. Anchura útil mínima de tramo en función del uso

Uso del edificio o zona	Anchura útil mínima (m) en escaleras previstas para un número de personas:			
	≤ 25	≤ 50	≤ 100	> 100
Residencial Vivienda, incluso escalera de comunicación con aparcamiento	1,00(1)			
Docente con escolarización infantil o de enseñanza primaria Pública concurrencia y Comercial	0,80(2)	0,90(2)	1,00	1,10
Sanitario Zonas destinadas a pacientes internos o externos con recorridos que obligan a giros de 90° o mayores	1,40			
Otras zonas	1,20			
Casos restantes	0,80(2)	0,90(2)	1,00	1,00

(1) En edificios existentes, cuando se trate de instalar un ascensor que permita mejorar las condiciones de accesibilidad para personas con discapacidad, se puede admitir una anchura menor siempre que se acredite la no viabilidad técnica y económica de otras alternativas que no supongan dicha reducción de anchura y se aporten las medidas complementarias de mejora de la seguridad que en cada caso se estimen necesarias.

(2) Excepto cuando la escalera comunique con una zona accesible, cuyo ancho será de 1,00 m como mínimo.

5.- La anchura de la escalera estará libre de obstáculos. La anchura mínima útil se medirá entre paredes o barreras de protección, sin descontar el espacio ocupado por los pasamanos siempre que estos no sobresalgan más de 12 cm de la pared o barrera de protección. En tramos curvos, la anchura útil debe excluir las zonas en las que la dimensión de la huella sea menor que 17 cm".

Aipatu guztiagatik, eta hasiera batean Eraikuntzaren Kode Teknikoaren arabera eskaileren zabalera metro batekoa izan beharko lukeen arren, legeak berak estutzeko aukera ematen du. Beraz, kontuan harturik igogailu bat jartzeko dela eta horrek eraikinaren irisgarritasun



Usurbilgo Udala



baldintzak hobetuko lituzkeela, ez litzateke arazorik egongo, salbuespen gisa, eta igogailua jartzeko beste aukerarik ez dauden kasuetan, eskaileren gutxieneko zabalera 0,80 cmko izateko.

Hori dela eta, Montse Padrones andereak aurkeztutako alegazioari ALDEKO erantzuna ematea proposatzen da.

**b.- Ainhoa Azpiroz eta Zaloa Arnaiz andereak aurkeztutako alegazioa.**

Ainhoa Azpiroz eta Zaloa Arnaiz andereak aurkeztutako alegazioan, 7. Artikuluan jabari publikoa modu pribatiboan okupatzean 68/2000 Dekretuak diona betetzera baldintzatzen bada, etxebizitzetako ondasun partikularrak okupatzean dekretu berdinerara baldintzatu beharko litzakeela diote. Eta ondorioz, artikulua 7. Puntua osatzea eskatzen dute, zehazki puntu hau gehituz:

*“Existitzen diren etxebizitzetako ondasun partikular bat, irisgarritasun egoera hobetzeko obrekin okupatzeak, edozein delarik ere obra horien izaera, 68/2000 Dekretuak diona bete egiten dela bermatuko du”.*

68/2000 Dekretuak III. Eranskinean eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoa xedatzen ditu, 1.1. artikuluan titulartasun publiko edo pribatuko eraikinetan aplikagarria dela adieraziz.

Beraz, ez legoke arazorik Ainhoa Azpiroz eta Zaloa Arnaiz andereak aurkeztutako alegazioari ALDEKO erantzuna emateko.

Hori dela eta, akordio hau hartzea proposatzen da:

**Atal bakarra.-** Aurkeztutako alegazioak onartzea, 2014ko urtarrilaren 10eko txosten juridikoan oinarritua.

Donostian, 2014ko urtarrilaren 10ean.

Fdo.- Nekane Azarola Martínez  
ARAUDI S.L.P.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, alegazioak aztertu ostean ondoko txostena eman du:

EE2014\_01\_002  
BULEGO TEKNIKOA  
Udal Teknikariak Alkate jaunari  
PLANEAMENDUA



Usurbilgo Udala

## **IRISGARRITASUNA HOBETZEKO UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI TXOSTENA**

---

ALEGAZIOAK; Montse Padrones Ayuso (2013-11-27) eta Ainhoa Azpiroz eta Zalao Arnaiz (2013-12-11)

DATA; 2014ko urtarrila.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ02/2013-0452

---

### **1. AURREKARIAK:**

- 2013ko urriaren 29an Usurbilgo Udaleko Plenoak irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (210-zbk 2013-11-05).
- 2013ko azaroan iragarkiak argitaratu ziren komunikabideetan, 30 lan-egunez Ordenantza jendaurrean jarri: BERRIA (2013-11-01), GARA (2013-11-01) eta DIARIO VASCO (2013-11-05).
- Jendaurreko epealdian 2 alegazio jarri ziren:
  - o Montse Padrones Ayuso (2013-11-27).
  - o Ainhoa Azpiroz eta Zalao Arnaiz (2013-12-11).
- 2014ko urtarrilaren 10ean Usurbilgo Udaleko hirigintza aholkularitza juridikoak alegazioei erantzunez txostena idatzi zuen, bertan aurkeztutako alegazioak onartzea proposatzen zen.

### **2. ALEGAZIOEN AZTERKETA:**

Txosten honen helburua da Irisgarritasuna Hobetzeko Udal Ordenantzaren hasierako onespeneri jarritako bi alegazioak aztertu eta erantzutea.

#### **2.1. MONTSE PADRONES AYUSO ANDEREAREN ALEGAZIOA:**

Montse Padrones Ayuso andereak aurkeztutako alegazioan, Irazu kaleko "Paris" etxean igogailua jartzeko aukera bakarra eskailerak 80 cm-ko zabalerarekin uztea dela aiderazten du, eta ondorioz, ordenantzaren 20. artikuluan salbuespen hori ezartzea proposatzen.

Alegazio honi erantzuteko aintzat hartu beharreko araudiak dira EKT-ren DB-SI eta DB-SUA atalak eta Irisgarritasun bermatzeko 68/2000 Dekretua.

Alde batetik, EKT-ren DB-SI atalak eskaileren gutxieneko zabalera finkatzeko DB-SUA atalera bideratzen du. Azken honetan, erabilera orokorreko eskailera gutxieneko zabalera 4.1. tablan ezartzen du, etxebizitza erabilerarako 1,00 metrokoa ezarriz. Neurri gutxieneko honi, honako salbuespena ezartzen zaio;

*“ (1) En edificios existentes, cuando se trate de instalar un ascensor que permita mejorar las condiciones de accesibilidad para personas con discapacidad, se puede admitir una anchura menor siempre que se acredite la no viabilidad técnica y económica de otras alternativas que no*





Usurbilgo Udala

*supongan dicha reducción de anchura y se aporten las medidas complementarias de mejora de la seguridad que en cada caso se estimen necesarias.”*

EKT-ri dagokionean beraz, esan liteke, **1,00 metro baino gutxiagoko zabalera onar daitezkeela salbuespen moduan eta baldintza hau betetzen den kasuetan soilik.**

Bestetik, 68/2000 Dekretuak, eskaileren neurri eta baldintza zehatzak ezartzen dituen arren, zabalera gutxienekoaren inguruan ez du neurririk finkatzen. Halere, **zalantzako kasuetan Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari kontsulta egin dakioko.**

## **2.2. AINHOA AZPIROZ ETA ZALOA ARNAIZ ANDEREEN ALEGAZIOA:**

Ainhoa Azpiroz eta Zaloe Arnaiz andereek aurkeztutako alegazioan, 7.artikuluko 7. puntuan, etxebizitzaren desjabetze partziala edo bere zuloen ezeztatzea dakarten obra eta jarduketek buruz ari denean, artikuluko 5. puntuan jabari publikoari buruz ari denean ezartzen duen baldintza bera ezartzea eskatzen da, hau da, biek ala biek 68/2000 Dekretua betetzea. Horrela, alegazioan 7.7. artikuluari honakoa gehitzea proposatzen da:

*“Existitzen diren etxebizitzetako ondasun partikular bat, irisgarritasun egoera hobetzeko obrekin okupatzeak, edozein delarik ere obra horien izaera, 68/2000 Dekretuak diona bete egiten dela bermatuko du”.*

Alegazioa honi erantzuteko aintzat hartu beharreko araudia Irisgarritasunaren 68/2000 Dekretua da eta bertan, III. Eranskinaren 1.1. artikuluan eta V. Eranskinaren 2.1. artikuluan titulartasun publiko edo pribatuko eraikinetan aplikagarria dela finkatzen da.

Beraz, ez da eragozpenik ikusten Ainhoa Azpiroz eta Zaloe Arnaiz andereen alegazioa onartzeko.

## **3. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENA:**

Goian aipatutakoari jarraiki, behean izenpetzen duen teknikariaren ustez eta irizpide hobetzaile ezean, Irisgarritasun Hobetzeko Udal Ordenantzaren haserako onespenera ezarri zaizkion **alegazioak ontzat har litezke, beti ere, Ordenantzaren erredakzioan honako egokitzapenak barneratuz:**

- 20. artikuluari lehen bi paragrafoak honakoarekin ordezkatzeko:

*“Igogailua jartzeak ezingo du ekarri ebakuazio-ibilbidearen parte diren pasilloen zabalera indarrean den araudiak ezartzen duen gutxienezko behara estutzea.*

*Existitzen diren etxebizitzetan irisgarritasun baldintzak hobetzeko igogailua ezarri nahi den kasuetan, ebakuazio-ibilbidearen parte diren eskaileretan,*



Usurbilgo Udala

*salbuespen gisa, 1,00 metro baino gutxiagoko zabalerak onar litezke 0,8 metrotaraino, beti ere beste aukeren bideragarritasun tekniko eta ekonomiko eza justifikatu eta kasu bakoitzean segurtasuna hobetuko duten neurri gehigarriak ezartzen diren artean. Salbuespen kasu hauetan, Irisgarritasun Euskal Kontseiluari galdegingo zaio.”*

– 7.7 artikuluari honakoa gehitzea:

*“Existitzen diren etxebizitzetako ondasun partikular bat, irisgarritasun egoera hobetzeko obrekin okupatzeak, edozein delarik ere obra horien izaera, 68/2000 Dekretuak diona bete egiten dela bermatuko du”.*

Hau da esan behar nuena,

Usurbilen, 2014ko urtarrilaren 15ean.

UDAL ARKITEKTOA Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Udal gobernu taldeak, ARAUDI, SLP taldeko Nekane Azarola aholkulari juridikoaren eta udal arkitektoaren txostenak irakurri ondoren, izandako bi alegazioak aintzat hartzea hobetsi du.

Hala, aurkeztutako alegazioek proposatutako egokitzapenak egin ostean, *Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza* honela geratuko litzateke:

<b>Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza.</b>	<b>Ordenanza municipal relativa a la mejora de las condiciones de accesibilidad.</b>
I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK	TITULO I. DISPOSICIONES GENERALES
1. artikulua. Helburua.	Artículo 1. Objeto.
Ordenantza honek, erabilera nagusia bizileku kolektiboa duten eraikinen irisgarritasun egoera hobetzea helburu duten eraberritze esku-hartzeen hirigintza eta inguruabarrak arautzea du helburu.	Esta Ordenanza tiene por objeto regular las circunstancias urbanísticas y constructivas de las intervenciones de reforma cuyo objeto consista en la mejora de las condiciones de accesibilidad a los edificios cuyo uso predominante sea el residencial colectivo.
Aldi berean, nahitaezko desjabetzea bideratzeko irizpideak eta metodologia finkatzen dira, indarrean dagoen legedian irisgarritasunari dagokionez aurreikusten	Así mismo, se establecen los criterios y la metodología de actuación por expropiación forzosa para aquellos supuestos que, ajustándose a lo previsto en la legislación



Usurbilgo Udala



denaren ildotik eta hirigintzaren alorreko legedi korrelatiboa aintzat hartuta hartara jo beharra egokitzen denerako.

Jabari publikoa okupatzeko aukera ere aintzat hartuko da premia hori egiaztatua dagoen salbuespen kasuetan.

Beraz, posiblea izango da, igogailuak edo bestelako elementuak instalatzeko ezinbestekoak suertatzen diren espazio libreko edo jabari publikoko azalera hartzea; hala nola erabilera pribatiboko azalera komunak, esate baterako, atondoak, eskailera-buruak, gainazalak, hegalak eta karrerapeak, berdin lurzoruan, zorupean edo hegalean kokatzen badira ere; baldin eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko teknikoki edo ekonomikoki bideragarri den beste konponbiderik ez badago, eta beti ere espazio libreko, hornidura publikoetako eta jabari publikoaren gainerako elementuetako funtzionaltasuna ziurtatzen bada. Halako ondorioetarako, hirigintza antolamenduko tresnek aipaturiko erregelaren aplikazioa bermatuko dute: edo azalera haiek bolumen eraikigarriaren ondorioetarako ez konputatuz, ezta mugetara, beste eraikuntzetara, bide publikora edo lerrokaduretarako distantzia minimoak ere; edo helburu bere lortzeko aplikagarria den legeriarekin bat datorren beste edozein teknika aplikatuz.

## 2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza hau erabilera nagusia bizileku kolektiboa duten eraikinei aplikatuko zaie, baldin eta hiri-inguruneen, espazio edo guneko publikoen, eraikinen eta informazio – eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 dekretua indarrean jarri aurreko hirigintza-lizentzia batekin eraikiak badira.

Ordenantza hau egin berriak diren eraikinei aplikatuko zaie eta erabat zaharberritzen edo birgaitzen direnei, Ordenantza honetan islatutako kasuen antzeko arazo puntualak dituztenean.

vigente en materia de accesibilidad, se deduzcan de su correlativa legislación en materia urbanística.

También se considera la posibilidad de ocupar el dominio público en aquellos casos excepcionales en que tal necesidad quede acreditada.

Por tanto, será posible ocupar las superficies de espacios libres o de dominio público que resulten indispensables para la instalación de ascensores u otros elementos, así como las superficies comunes de uso privativo, tales como vestíbulos, descansillos, sobrecubiertas, voladizos y soportales, tanto si se ubican en el suelo, como en el subsuelo o en el vuelo, cuando no resulte viable, técnica o económicamente, ninguna otra solución para garantizar la accesibilidad universal y siempre que asegure la funcionalidad de los espacios libres, dotaciones públicas y demás elementos del dominio público. A tales efectos, los instrumentos de ordenación urbanística garantizarán la aplicación de dicha regla, bien permitiendo que aquellas superficies no computen a efectos del volumen edificable, ni de distancias mínimas a linderos, otras edificaciones o a la vía pública o alineaciones, bien aplicando cualquier otra técnica que, de conformidad con la legislación aplicable, consiga la misma finalidad.

## Artículo 2. Ámbito de aplicación.

La presente Ordenanza es de aplicación a los edificios cuyo uso predominante sea el residencial colectivo y cuya construcción se realizó con licencia urbanística anterior a la entrada en vigor del Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

Esta Ordenanza es de aplicación a las obras de nueva edificación o de rehabilitación integral que, puedan presentar puntualmente problemática análoga a los supuestos contemplados en esta Ordenanza.



Usurbilgo Udala

Aplikazio eremutik aparte geratzen dira AASSak zehaztutako berariazko antolamendutik kanpoko kasuan aurkitzen diren eraikinak.

Helburu horrekin aurreikusitako obra eta jarduketek ondorengoetan izan dezakete eragina:

- a) Etxe horiek dauden eraikinen barruko lokal eta espazioetan (osorik nahiz zati batean). Sestrapekoak zein sestra gainekoak eta horien erabilera edozein delarik ere.
- b) Etxe horien osagarri diren eraikinen barruko lokal eta espazioetan (osorik nahiz zati batean). Aipatutako etxebizitzak dauden eraikin horiei loturiko bizileku erabilerarako lurzati berean daudenak.
- c) Irisgarritasun lanak egin behar diren eraikineko etxebizitzak.
- d) Eraiki gabeko lursailak, bizilekuetarako erakinari atxikitako bizilekuetarako partzela berean kokatuta daudenak.
- e) Bizilekuetarako partzela horretatik kanpo gelditzen direnak, edo horrekin zerikusirik ez dutenak. Lursail horiek mugakide izan beharko dute irisgarritasun arazoak dituzten etxebizitzak kokatuta daudeneko bizitegietarako eraikinarekin.

Nolanahi ere baimena emango da, baldin eta etxebizitzak edo etxebizitza zatiak obrak eta jarduerak, indarrean dagoen hirigintzako antolamenduan ezarritako irizpideen arabera baldin badira, kokatuta daudeneko solairua edozein delarik ere. Salbuespen gisa, eta behar bezala egiaztatu ondoren, baimenduko dira irisgarritasun arazoari bestelako irtenbiderik eman ezin zaionean eta eraikitako muga barruan eta ordenantza honek ezarritako baldintzetan.

Lurzati batzuetan dauden hainbat eraikinetako

Quedan excluidos de su ámbito de aplicación los inmuebles que se encuentren en el supuesto de fuera de ordenación expresa definido por las NNSS.

Las obras y actuaciones proyectadas para resolver los problemas de accesibilidad pueden incidir en:

- a) Locales y espacios, o partes de los mismos, situados en el interior de las edificaciones en las que se ubican las citadas viviendas, tanto sobre como bajo rasante, cualquiera que sea el uso al que se destinen.
- b) Locales y espacios, o partes de los mismos, ubicados en otras edificaciones complementarias de las anteriores, situadas en la misma parcela vinculada a las citadas edificaciones en las que se ubican las referidas viviendas.
- c) Viviendas existentes en el edificio donde se pretende realizar las obras de accesibilidad.
- d) Terrenos no edificados integrados en la parcela vinculada a la referida edificación.
- e) Terrenos exteriores y ajenos a la citada parcela, colindantes tanto con ésta como con la edificación de la que formen parte las viviendas con dificultades de acceso.

En cualquier caso, solo se autorizarán obras y actuaciones que incidan en viviendas o partes de las mismas existentes en las edificaciones afectadas por aquellas, implantadas de conformidad con los criterios establecidos en el planeamiento urbanístico vigente, cualquiera que sea la planta en la que se ubiquen, de forma excepcional, y previa acreditación de imposibilidad real de otras alternativas o solución al problema de accesibilidad dentro de los límites edificados y siempre en las condiciones establecidas en la presente Ordenanza.

Unas mismas obras y actuaciones pueden ser



Usurbilgo Udala

etxebizitzetako sarrera ahalbidetzeko helburuarekin planteatu daitezke zenbait obra eta jarduketetan.

3. artikulua. Hobekuntza esku-hartzearen baldintza bereziak.

Hirigintza-plangintzaren ondorioz antolamendutik kanpo geratzen diren eraikinak, edo plangintzarekin bat ez datozenak, edo antolakuntza xehakatu egiteke duten arlo eta sektoreetan lehendik zeudenak bai bildu ahal izango dira Ordenantza honetan aurreikusten dena, nahiz eta egiten diren obrek eraikinari edo bertako elementu pribatiboei ekar liezaieketen balio handitzea aintzakotzat ez hartu gerora haiek desjabetu beharra egokitzen bada.

Plangintzak, antolamenduz kanpo berariaz utzi diren eraikinak ezingo dira bildu aurreikusitakora.

4. artikulua. Irizpide orokorra.

Orokorrean eta hurrengo artikuluetan zehaztutakoari kalterik egin gabe, ordenantza honek eragindako eraikin eta etxebizitzaren sarrera egokitzearen nahiz helburu horretarako beharrezkoa diren elementuak (igogailua barne) jartze arren burutu beharreko obrak egokituko zaizkio indarrean dagoen hirigintza planeamenduan ezarritako hirigintza baldintzei nahiz baldintza teknikoei.

5. artikulua. Indarrean dagoen hirigintza planeamenduan eta horren garapenerako zehaztutako xedapenetan ezarri diren baldintzak birdoitzea.

1. Indarrean dagoen hirigintza planeamenduan eta horren garapenerako zehaztutako xedapen guzti-guztien arabera, ordenantza honek eragindako eraikinen ezaugarri fisikoek eta materialek, eraikin horietako etxebizitzaren sarrera egokitzearen beharrezkoak diren obrak burutzea eta elementuak instalatzea (igogailua barne) galaraziko balute, ondorengo irizpideen arabera jardungo da:

planteadas con el fin de dar acceso a viviendas ubicadas en edificaciones diversas situadas en parcelas asimismo diversas.

Artículo 3. Condiciones especiales a la intervención de mejora.

Los edificios que, por razón del planeamiento urbanístico, queden en situación de fuera de ordenación, o bien sean disconformes con el planeamiento, o bien resulten preexistentes en áreas o sectores pendiente de ordenación pormenorizada, podrán acogerse a lo previsto en esta ordenanza, si bien la posible revalorización que la ejecución de dichas obras puedan suponer para el inmueble o sus elementos privativos no será considerada en una eventual expropiación.

Las edificaciones que se encuentren en fuera de ordenación expresa por el planeamiento no podrán acogerse a lo previsto.

Artículo 4. Criterio general.

Con carácter general y sin perjuicio de lo que se indica en los siguientes artículos, tanto las obras a ejecutar con el fin de adaptar el acceso a las edificaciones y viviendas afectadas por esta ordenanza, como la instalación de los elementos, incluido ascensor, que con ese mismo fin resulten necesarias, se ajustarán a las condiciones urbanísticas y técnicas establecidas en el planeamiento urbanístico vigente.

Artículo 5. Reajuste de condiciones establecidas en el planeamiento urbanístico vigente y en las disposiciones promulgadas en su desarrollo.

1. En el supuesto de que las características físicas y materiales de las edificaciones afectadas por esta ordenanza no hagan posible la ejecución de las obras y la instalación de los elementos, incluido ascensor, necesarios para adaptar el acceso a las viviendas situadas en las mismas de acuerdo con todas y cada una de las previsiones establecidas en el planeamiento



Usurbilgo Udala

- Etxebizitza horien sarrera egokitzearren burutu beharrezko obrak eta instalatu beharreko elementuak, indarrean dauden xedapen haietara egokituko dira; hots, xedatutako helburua eragotzi nahiz zailtzen ez duten gai eta arlo guztietan.
- Bestalde, xedatutako helburua (eraikin horietako etxebizitzaren sarrera fisikoa ematea) eragotzi nahiz zailtzen duten aurreikuspenek araututako gai eta arloei dagokienean, ondorengo irizpide eta baldintzen arabera jardungo da:

## 2. Lehenetsun-ordena:

Aipatutako helburuarekin burutu beharrezko obrak eta instalatu beharrezko elementuak, ondorengo eremu nahiz espazioetan burutuko dira. Baita honako lehenetsun orden honetan ere:

- a) Eskailera zuloa, ahal izanez gero, beste edozein aukera baino bidezkoagoa denean.
- b) Eraikinaren ingurakariaren barruan, patioa barne, aurreko aukera ezinezkoa denean, edo beste aukeren artean egokiena denean. Geletako argitasuna eta aireztatpena bermatu beharko dira.
- c) Fatxadan, eraikinari loturiko lur-zatiaren barruan, atzeko edo alboetako fatxadak lehenetsiz aurreko irtenbideak bidezkoak edo gomendagarriak ez direnean. Bai eta beste aukeraren bat baino egokiagoa denean.
- d) Fatxadan, eraikinari loturiko lurzatitik kanpo, aurreko irtenbideak bidezkoak edo gomendagarriak ez direnean.

urbanístico vigente y en las disposiciones promulgadas en su desarrollo, se actuará de conformidad con los siguientes criterios:

- Las obras a ejecutar y los elementos a instalar con el indicado fin de adaptar el acceso a las citadas viviendas, se ajustarán a las citadas previsiones vigentes en todos aquellos extremos y materias cuya aplicación no dificulte o imposibilite la consecución del objetivo propuesto.
- Por su parte, en lo referente a los extremos y materias regulados en las citadas previsiones vigentes, cuya aplicación dificulte o impida la consecución del objetivo propuesto de dar acceso físico a las viviendas situadas en las referidas edificaciones, se actuará de acuerdo con los criterios y condiciones que se exponen a continuación:

## 2. Orden de preferencia:

Las obras a realizar y los elementos a instalar con el referido fin se realizarán en los ámbitos o espacios que se indican a continuación, de acuerdo con el orden de preferencia que asimismo se expone:

- a) La caja de escaleras, siempre que sea posible, al tiempo que más razonable que cualquier otra alternativa.
- b) Dentro de la envolvente de la edificación, incluido el patio, en el caso de que la alternativa anterior no sea posible o resulte preferente a cualquier otra alternativa. Debiendo garantizarse la ventilación e iluminación de las piezas.
- c) En fachada, dentro de la parcela vinculada a la edificación, priorizando las fachadas traseras o laterales, siempre que las anteriores no sean posibles o aconsejables, o resulte más adecuada que cualquier otra alternativa.
- d) En fachada, fuera de la parcela vinculada a la edificación, siempre que las soluciones anteriores no sean posibles o



Usurbilgo Udala

e) Jabego pribatuko lokaletan, beti ere lokalaren guztizko galera ez badakar.

f) Etxebizitzetan, azpi-etxebizitza bihurtzen ez badira, edo irisgarritasun baldintzak instalatzeak dakartzan onurak baino kalte gehiago sortzen badira.

g) Justifika daitezkeen beste aukera batzuk.

### 3. Berme orokorrak:

Gai horren inguruan proposaturiko irtenbidea edozein delarik, oinarritzko baldintzen mantenimendua eta zaintza bermatu beharko dira. Alde batetik, eta egungo ezaugarriren baten aldaketa kaltetu gabe, zuzenean eragindako eremu nahiz espazioek –sotoa, eskailerak, patioa, fatxada– helburu horretarako egokiak izaten eta horiei dagokien zerbitzua ematen jarrai dezaten. Beste aldetik, eremu horietaz baliatzen diren etxebizitza nahiz lokalek, dagokien erabilera edo jarduera garatzeko, beharrezkoak diren oinarritzko baldintzak izaten jarrai dezaten.

Zehaztutako baldintzak beteko direla bermatu ahal izateko, kasuan kasu ebaluatuko dira eta aipaturiko espazio edo eremuetan planteaturiko proposamenek sor ditzaketen edonolako eragin edo kaltearen –fisiko, estetiko, akustiko, etab.– ezinbesteko xehetasunak erantsiko zaizkio. Eragin edo kalte horiek zuzendu edo deuseztatzeko beharrezkoak diren tresnak zehaztuko dira, helburu horretarako egokitzat hartzen diren material eta makineria barne.

Horrela, etxebizitzetako eraikineko birgaitzetan eta teilatuan eraginik ez izateko, lehentasuna izango du makina gela gabeko igogailuen jartzeak.

Teilatu gainetik bolumen bat ateratzekotan, honek ahal den eragin bisual txikien eragingo

aconsejables.

e) En locales de propiedad privada, siempre que no supongan una pérdida total del uso del local.

f) En viviendas existentes, siempre que no supongan una pérdida del uso o reconversión en infravivienda, o supongan un perjuicio mayor que el de la instalación de las condiciones de accesibilidad.

g) Otras posibles opciones que pudieran justificarse.

### 3. Garantías generales:

Cualquiera que sea la solución que a ese respecto se proponga, deberá garantizarse el mantenimiento y la preservación de las condiciones básicas necesarias para que, por un lado y sin perjuicio de la modificación de algunas de sus características actuales, los ámbitos o espacios directamente afectados –portal, escaleras, patio, fachada– sigan siendo aptos para el correspondiente fin y puedan seguir prestando el servicio propio de los mismos, y, por otro, las viviendas y locales que se sirvan de ellos sigan manteniendo las condiciones básicas necesarias para su destino al correspondiente uso o actividad.

A los efectos de garantizar la cumplimentación de las indicadas condiciones, se evaluarán en cada caso y con el detalle necesario los impactos y las afecciones de cualquier naturaleza –física, estética, acústica, etc.– que las propuestas planteadas puedan conllevar en los referidos espacios o ámbitos, y se determinarán los mecanismos de corrección o eliminación de los mismos, incluyendo la utilización de los materiales y maquinarias que con ese fin se entiendan adecuados.

Así, en el caso de edificios residenciales objeto de rehabilitación y para evitar la caseta de cubierta, se prioriza la instalación de ascensores sin cuarto de máquinas.

En caso de sobresalir un volumen en cubierta, ésta causará el menor impacto visual posible



Usurbilgo Udala

du, teiltuarentzako egokiak diren bukaerako materialak erabiliz.

4. Indarrean dagoen hirigintza araudiko beste xedapen batzuk birdoitzea.

Aipatutako eraikin eta etxebizitzetarako sarrera fisikoa egokitzeko irtenbideak bidezkoak eta egokiak diren guztietan, horiekin mugakide diren lursailei eragiten dietenean, haien garapenak eta burutzapenak indarrean dauden beste xedapen batzuk (lursail horien hirigintza kalifikazio erregimena, lurzatitze eta jabari baldintzak, horien izaera juridikoa barne, eraikinaren lerrokadurak, behar bezala justifikatutako bestelakoak) birdoitu behar direnean, birdoitze horien edukia eta eskumena honako hauetatik ondorioztatuko da:

- a) Bai, zuzenean, proiektu hau eta aipatutako erabakiak era bateratuan kontuan hartzetik, edo
- b) Bai Plan Berezi edo Xehetasun Azterlanetik. Hau da, hala badagokio eta balizko kasu bakoitzaren egoera bereziak kontuan harturik, helburu horretarako, sustatzea erabakitzen den azterlanetik.

Kasuan kasuko arazo eta egoera bereziak kontuan harturik, ondorengo erabakiko da: Bai birdoitze horiek proiektu hau nahiz proposatu eta onartutako irtenbideak era bateratuan hartzearen ondorio direla, bai horretarako beharrezkoa dela Plan Berezia edo Xehetasun Azterlana aurretik idaztea eta onartzea, birdoitze horien eskumen eta izaeraren arabera.

6. artikulua. Beste baldintza batzuk.

1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste instalazioen bat jartzea, beharrezkoa den zerbait ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarrizko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalerak (teknikoki beharrezkoa

con materiales de acabado acordes a la cubierta existente.

4. Reajuste de otras previsiones reguladoras del régimen urbanístico vigente.

Siempre que las soluciones de adaptación del acceso físico a las indicadas edificaciones y viviendas se consideren razonables y adecuadas, y afecten a terrenos situados en colindancia con aquéllas, y su desarrollo y ejecución requiera el reajuste de otras previsiones vigentes -régimen de calificación urbanística de esos terrenos; condiciones de parcelación y dominio, incluida la naturaleza jurídica de los mismos; alineaciones de la edificación; cualesquiera otras que se justifiquen debidamente, se entenderá que el contenido y alcance de esos reajustes es el que resulta:

- a) Bien directamente de la consideración conjunta de este proyecto y de las indicadas soluciones, o,
- b) Bien del Plan Especial o Estudio de Detalle que, en su caso y en atención a las circunstancias específicas de los correspondientes supuestos, se acuerde promover con ese fin.

En atención a la problemática y a las circunstancias específicas de cada caso se acordará, bien que los indicados reajustes resultan directamente de la consideración conjunta de este proyecto y de las soluciones propuestas y aprobadas, bien que para ello es necesaria la previa elaboración y aprobación de, según sea el alcance y naturaleza de esos reajustes, de un Plan Especial o un Estudio de Detalle».

Artículo 6. Otros condicionantes.

1. A los efectos de esta Ordenanza, se considera que la implantación de un ascensor u otra instalación destinada a facilitar la accesibilidad, en una edificación existente representa la incorporación de una instalación necesaria constituyendo un servicio esencial para la funcionalidad de las viviendas. Por lo tanto, la superficie





Usurbilgo Udala

denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goititzerik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.

2. 5. artikuluan azaldutako proposamen eta baldintza teknikoak aplikagarriak izango dira eragindako etxebizitzetan eraberritze –eta birgaitze– obrak eginez gero eta haien indarraldia eta aplikazioa horiek mantentzeari loturik daudela ulertuko da.

3. Eraikin horiek ordezkatu eta erabat eraberrituz gero, aurreikusitako eraikin berria, indarrean dauden hirigintza xedapenei eta xedapen tekniko guztiei egokituko zaie.

4. Indarrean dagoen hirigintzako araudian doiketak egiten direnean, aurreko artikuluan adierazitako irizpideen arabera, helburu hauek bermatuko dira:

- a) Sarrera etxebizitzeari dagokien araudiari egokitua izatea.
- b) Eragindako eremu edo espazioak – eskailera zuloa, patioa, fatxada, e.a.– dagokion zerbitzua emateko egokiak diren ezaugarri eta baldintzak izatea.

5. Aipaturiko etxebizitza eta eraikinetarako sarrera egokitzeko irtenbideak, kasuan kasu, dagokien obra proiektu teknikoan edota eraikuntza proiektuan definituko dira. Proiektu horiek udal obra lizentzia egokia lortzeko egin beharrekoak dira.

6. Ordenantza honetan adierazitako hirigintzako aurreikuspen eta aurreikuspen teknikoan aplikazioa, eragindako eraikinetan egin

necesaria para llevar a cabo esta instalación (incluida la adaptación técnicamente necesaria de elementos privativos de las propias viviendas que puedan conllevar un incremento de edificabilidad) no supondrá un aumento de la superficie edificable, por lo que podrán instalarse en edificios que hayan agotado la edificabilidad máxima asignada por el Planeamiento.

2. Las propuestas y condiciones técnicas recogidas en el artículo 5 serán de aplicación en los supuestos de realización de obras de reforma y rehabilitación en las edificaciones afectadas, y la vigencia y aplicación de aquellas se entenderá asociada al mantenimiento de éstas.

3. En caso de sustitución o reforma integral de las citadas edificaciones, la nueva construcción proyectada ha de ajustarse en su integridad a las previsiones urbanísticas y técnicas del planeamiento urbanístico que esté en vigor.

4. Cuando se produzcan los reajustes del régimen urbanístico vigente, conforme a los criterios señalados en el artículo anterior, se deberá garantizar la consecución del necesario y global equilibrio entre estos dos objetivos:

- a) El acceso adaptado a la normativa a las correspondientes viviendas.
- b) Que el ámbito o espacio afectado – caja de escaleras, patio, fachada, etc.– tenga las características y condiciones adecuadas para prestar el servicio propio del mismo.

5. Las soluciones de adaptación del acceso a las referidas viviendas y edificaciones han de ser definidas en cada caso en el correspondiente proyecto técnico de obra y/o edificación a elaborar a los efectos de la obtención de la correspondiente licencia municipal de obra.

6. La aplicación de los reajustes de las previsiones urbanísticas y técnicas contemplados en esta ordenanza se entenderá



Usurbilgo Udala

litezkeen birgaitze eta eraberritze obrei eta horiek mantentzeko lanei dagokiela ulertuko da. Ez, ordea, horiek ordezkatzeko nahiz osotasunean eraberritzeko lanei.

7. Hirigintza Ondarearen Katalogoaren barne dauden ondasunak eta eraikinen kasuan, obra horietarako baimena ondorengo baldintzen menpe egongo da: Ondasun eta eraikin horiek baldintza egokietan babesteko eta mantentzeko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren neurriak zehaztea eta burutzea. Ondasun eta eraikin horiek degradatu eta ahulduko duten obrak burutzea edo instalazioak ezartzea ez da inolaz ere baimenduko.

7. artikulua. Jabari publikoa eta hirugarren pertsonak erasatea.

1. Jabari publikoari eragiten dioten konponbideak kasu honetan onartuko dira soilik, proiektu teknikoan arrazoitzen bada beste aukerak baztertu egin behar direla ezin direlako gauzatu edo neurritz kanpokoak direlako; eta afektazio hori ahalik eta txikiena izaten saiatu beharko da.

2. Irisgarritasun egoera hobetzeko egintzek jabari publikoko lurzorua okupatzea eskatzen badute, hirigintza-baimenik ez ezik, lurzorua modu pribatiboan okupatzeko behar den administrazio-emakida ere eskuratu beharra izango da.

Jabari publikoko lurzorua modu pribatiboan okupatzeko, behar den administrazio-emakida eskuratu beharko da, gehinez ere 75 urtetarako, dagokion espedientea bideratuz.

Jabari publikoa modu pribatuan okupatzeko administrazio-emakida hori salbuespenezkoa izango da eta espazio publikoaren funtzionaltasun galerarik ez dela gertatuko behar bezala bermatzen bada baino ez da bidezko izango ematea. Emakida ematekotan, toki araubideari eta ondasunei buruzko legedietan aurreikusten diren sistemei jarraiki emango da, eta eraikina ordezkatzeko denean indargabetuko, edo

referida a los supuestos de realización de obras de reforma y rehabilitación en las edificaciones afectadas, así como al mantenimiento de éstas, y no así a los de su sustitución o reforma integral.

7. Tratándose de bienes y edificaciones incluidos en el Patrimonio Urbanístico Catalogado, la autorización de las citadas obras se supeditará a la determinación y ejecución de las medidas que en cada caso se estimen necesarias para la preservación y el mantenimiento de dichos bienes y edificaciones en las condiciones adecuadas. No se autorizará en ningún caso la ejecución de obras y la implantación de instalaciones que degraden y/o desvirtúen los valores de esos bienes y edificaciones.

Artículo 7. Afecciones al dominio público y a terceras personas.

1. Las soluciones que afecten a dominio público sólo se admitirán cuando se justifique en el proyecto técnico que deben descartarse otras opciones por resultar de imposible ejecución o notoriamente desproporcionadas, y tratarán de que dicha afección sea la menor posible.

2. Los actos de mejora de las condiciones de accesibilidad que requieran la ocupación de terrenos de dominio público, están sujetos no sólo a la concesión de la licencia urbanística, sino también a la pertinente concesión administrativa para la ocupación privativa de los terrenos.

Para la ocupación privativa del dominio público, se deberá obtener la necesaria concesión administrativa, como máximo para 75 años, a través del correspondiente expediente.

Esta concesión administrativa para la ocupación privativa del dominio público será de carácter excepcional, y sólo será procedente cuando se garantice suficientemente que no se produce pérdida en la funcionalidad del espacio público. Su eventual concesión se realizará según los sistemas previstos en las legislaciones de régimen local y de bienes, y finalizará bien cuando el edificio sea sustituido, o bien



Usurbilgo Udala

behar den espedienteen egiaztatzen den interes publikoak administrazio-emakida hori iraungitzea edo amaitutzat ematea eskatzen duenean. Edozelan ere, administrazio-emakida iraungitzean edo amaitzean, jabari publikoa utzi edo hustu eta leku hura lehen zegoen moduan utzi beharko du emakidaren titularrak. Administrazio-emakidaren amaierak edo emakida iraungitzeak inolaz ere ez du sortuko inongo kontzepturen kalte-ordain eskubiderik.

3. Jabari publikoan eragiteak bertan dauden azpiegiturak aldatzea badakar, horien trazatua aldatzearen kostuak espedientea sustatu duten interesdunek hartu beharko dituzte beren gain.

4. Jabari publikoa okupatzeko administrazio-emakidaren titularrak, espazio zein elementuak mantentzeko, garbi edukitzeko eta behar den segurtasun-egoeran zaintzeko beharrezko diren lanak egitera behartuta egongo dira.

5. Jabari publikoa irisgarritasun egoera hobetzeko obrekin modu pribatiboan okupatzeak, edozein delarik ere obra horien izaera, 68/2000 Dekretuak diona bete egiten dela bermatuko du.

Horrelakoen egikaritzak eta diseinuak ez die hautemateko arazorik sortu behar bista urritasuna duten pertsoneri, beraz, ahal izanda, oinezkoendako ibilbide libreari ahalik eta gutxien eragingo diote eta ez dute hegal-elementurik eduki beharko, makilarekin hautemangarria edo detektagarria ez denik, eta modu positiboan balioetsiko da gainerako zoruarekiko kolore-kontrastea.

6. Obra-lizentziari dagokion espedienteen aldeko txostena eman ondoren, jabari publikoa modu pribatuan okupatzeko administrazio-emakidari dagokion espediente bideratuko du udalak, azken hori eman aurretik ezin izango baita beste aurreko hori eman. Horrela, obra-lizentzia ematen duen administrazio ebazpenak, bere baldintza berezi edo partikularrez gain,

cuando el interés público acreditado en el correspondiente expediente considere necesaria su extinción. En cualquiera de los casos, con la extinción de la concesión administrativa procederá la persona titular de la concesión a la desocupación del dominio público y a la restitución a su estado original. La extinción de la concesión administrativa no generará un derecho a indemnización por concepto alguno.

3. En el caso de que la afectación al dominio público conllevara la alteración de las infraestructuras situadas en éste, los costes de la modificación del trazado de éstas deberán ser asumidos por las personas interesadas precursoras del expediente.

4. Las personas titulares de la concesión administrativa para la ocupación del dominio público estarán obligadas a realizar las necesarias labores de mantenimiento, limpieza y conservación en las debidas condiciones de seguridad del elemento para el que se ha otorgado dicha concesión.

5. La ocupación privativa del dominio público por obras de mejora de las condiciones de accesibilidad, sea cual fuere su naturaleza, garantizará que se cumple con el Decreto 68/2000.

Su ejecución y diseño, asimismo, se realizará de tal manera que no cree problemas de detección a las personas con deficiencias visuales, afectando lo menos posible al itinerario libre peatonal y no ofreciendo elementos volados cuyo perímetro no pueda ser detectable con el bastón, valorándose de forma positiva su contraste cromático con el resto del pavimento.

6. El Ayuntamiento instruirá el expediente concerniente a la concesión administrativa para la ocupación privativa del dominio público, una vez informado favorablemente el expediente correlativo a la licencia de obras, sin que se pueda conceder esta última sin la concesión aludida. De esta forma, la resolución administrativa por la que se conceda la licencia de obras incluirá, además de sus



Usurbilgo Udala

jabari publikoa modu pribatiboan okupatzeko administrazio-emakidak berekin dakartzanak ere jasoko ditu bere baitan.

7. Etxebizitzen desjabetze partziala edo bere zuloen ezeztatzea dakarten obra eta jarduketan baimenak ez du ekarriko inolaz ere, bizigarritasun baldintzak galtzea edo azpi-etxebizitza bihurtzea. Egiaztatu egin beharko da desjabetuari egiten zaion kaltea ez dela jarriko diren irisgarritasun neurrien instalazioarena baino handiagoa.

Existitzen diren etxebizitzetako ondasun partikular bat, irisgarritasun egoera hobetzeko obrekin okupatzeak, edozein delarik ere obra horien izaera, 68/2000 Dekretuak diona bete egiten dela bermatuko du.

8. Ez dira baimenduko guztizko desjabetzea dakarten obrak ebazpen judicial irmo bat ez bada. Halere, baimenduko dira zortasunari eragiten diotenak, hala nola, argi eta bistena, nahiz eta kasu horietan ondorio kaltegarriak gutxitzeko neurriak hartuko diren.

9. Ordenantzarekin bat ematen diren baimenak jabetza-eskubidea alde batera utzita eta hirugarrenen eskubideei kalte egin gabe emango dira. Ordenantzak arautzen duen esparru juridiko teknikoaren barnean ematen diren baimenak hirigintzako legezkotasunaren adierazpen hutsak dira, eta irizpide objektibo eta arautuetan oinarritzen dira. Hortaz, ez daude interesdunek adostasuna lortzearen mendean eta ez dakarte akordio horiek zuzenak direla ebazterik.

## II. TITULUA IRISGARITASUNA ERRAZTEKO OBRAK ETA INSTALAZIOAK

8. artikulua. Irisgarritasuna hobetzeko eraikinari gehitzen zaizkion elementuen klasifikazioa.

Eraikinetan izan ohi diren traba arkitektonikoak-gehienbat kanpotik eta

propias condiciones particulares, aquellas que se deduzcan de la concesión administrativa para la ocupación privativa del dominio público.

7. Las autorizaciones de obras y actuaciones que supongan la expropiación parcial de viviendas o anulación de alguno de sus huecos, en ningún caso, supondrá la pérdida de las condiciones de habitabilidad de la vivienda afectada o la reconversión en una infravivienda, debiendo quedar acreditado que el perjuicio que se causa al expropiado no resulta superior al de la instalación de las medidas de accesibilidad a implantar.

La ocupación de algún bien particular en viviendas existentes por obras de mejora de las condiciones de accesibilidad, sea cual fuere su naturaleza, garantizará que se cumple con el Decreto 68/2000.

8. No se autorizarán obras y actuaciones que supongan la expropiación total, salvo en ejecución de una resolución judicial firme, pero sí las que impliquen la de las servidumbres, tales como la de luces y vistas, si bien, en dichos casos, habrán de contemplarse medidas que reduzcan sus eventuales efectos perjudiciales.

9. Las autorizaciones que se concedan al amparo de lo dispuesto en esta Ordenanza, se entenderán otorgadas salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del de terceros. Las licencias otorgadas en el marco jurídico técnico que se regulan en ella, constituyen meras declaraciones de legalidad urbanística basados en criterios objetivos y reglados por lo que ni se subordinarán al acuerdo de voluntades de los interesados ni prejuzgará la corrección de aquellos.

## TITULO II OBRAS E INSTALACIONES TENDENTES A FACILITAR LA ACCESIBILIDAD

Artículo 8. Clasificación de los elementos que se incorporan a la edificación para mejorar la accesibilidad.

Dentro de las actuaciones más comunes que se pueden realizar en un edificio para



Usurbilgo Udala

etxebizitzan atarira bitartean izan ohi diren harmailak-kentzeko bidera daitezkeen jarduerarik arruntenak honela sailkatu ahal dira, beren berezitasun teknikoak eta eraikuntza-ezaugarriak aintzakotzat hartuta.

1. Irisgarritasun-arrapalak; horien diseinua hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan jasotako irizpide teknikoetara egokitu beharko da.
2. Behetik gorako nahiz zeharkako elementu mekanikoak, beren ezaugarri teknikoen arabera honela banatzen baitira:
  - ✓ Plataforma jasotzaileak, eta,
  - ✓ Igogailuak.
3. Irisgarritasun egoera hobetzeko eraikuntzan edo urbanizazioan gehituko diren elementuak aukeratzeko orduan, irisgarritasun eta igarogarrtasun irizpidea ondoren betetzen duten alternatibak aukeratu beharko ditu etxejabeen elkarteak, hirugarrengoei eragin dakiekeen proportzionaltasuna kontuan hartuta; nahiz eta azken irizpidea udal zerbitzu teknikoek txosten arrazoituan aipatutakoa izango den.

## I. KAPITULUA. ARRAPALAK

### 9. artikulua. Kokapena.

Arrapalak-bai eraikinaren lerrokaduran, bai etxebizitzan atarieren barruan igogailuaren plataformara edo beheko solairuko bitarteko tranpalera bitartean eskailera gisa jarritako kota-desberdintasun txikiak gainditzeko balio duten obra bidezko eraikuntza-elementuak-honela sailka daitezke, kokalekuaren arabera:

eliminar las barreras arquitectónicas existentes, y que normalmente en forma de peldaños existen desde el exterior hasta el umbral de las diferentes viviendas, podemos clasificarlas de la forma siguiente atendiendo a su especialidad técnica y constructiva:

1. Rampas de accesibilidad cuyo diseño se atenderá a los criterios técnicos contenidos en el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.
2. Elementos mecánicos de traslación vertical u oblicua que atendiendo a sus características técnicas se distinguen en:
  - ✓ Plataformas elevadoras, y
  - ✓ Ascensores
3. En la elección de los elementos a incorporar a la edificación o urbanización para la mejora de las condiciones de accesibilidad, la Comunidad de Propietarios procurará seleccionar aquella alternativa que mejor satisfaga los criterios de accesibilidad o practicabilidad, teniendo en cuenta la proporcionalidad respecto a la afección a terceros, si bien el criterio final será el determinado por los Servicios Técnicos Municipales en informe razonado.

## CAPITULO I. RAMPAS

### Artículo 9. Emplazamiento.

Las rampas, como elementos constructivos de obra que sirven para salvar pequeñas diferencias de cota que en forma de peldaños se incorporan bien en la alineación de la edificación y/o en el interior de los portales de las viviendas hasta la plataforma del ascensor o hasta una meseta intermedia en planta baja, en función de su ubicación las clasificamos en:



Usurbilgo Udala

1. Arrapalak eraikin barruan.

Eraikinen barruan egiten diren arrapalek, zona komunetan egiten direnek, partikularren jabetzei eragiten dietenean eta etxebizitza barruetan bizi direnen irisgarritasuna lortzeko hori egitea derrigorrezkoa eta beharrezkoa denean, Ordenantza honetan aurreikusitako desjabetze-araubidera bildu daitezke, baldin eta Ordenantzaren V. Tituluak zehazten dituen inguruabarrek edo zer-nolakoez eragiten badute.

2. Eraikinen kanpoaldeko arrapalak.

Aurreko konponbidea, hau da, irisgarritasun-arrapala jartzea, teknikoki ez bada bideragarri, udal zerbitzu teknikoaren txosten arrazoituen arabera, eraikin jakin baten barruan, irisgarritasunarrapala kanpoaldean egiteko baimena eskatu ahal izango dute interesdunek, baina hala ere, bai erabilera publikoko espazio pribatua, bai bide publikoa edo erabilera eta herri eskupeko guneak okupatzekotan, behar den administrazio-emakida eskuratu beharko da.

10. artikulua. Aukeratu den konponbidearen justifikazioa.

Proiektu teknikoetan edo, halakorik egin beharrik izanez gero, 22. artikuluan adierazten diren alde aurreko azterketetan, arrazoitu egin beharko da arrapala jartzeko aukeratutako lekua. Azken buruan arrapala erabilera publikoko lurzoruan jartzea proposatzen bada, justifikatu egin beharko da, hura eraikinaren barruan jartzea galarazten duten arrazoiak eman eta azalduz.

Udal zerbitzu teknikoek, emandako argudioak aztertu ondoren, egokitzat jotzen dituzten argibideak edo agiriak eskatu ahal izango dituzte, edozein kokalekuri buruz, beti ere proposamena hobetze aldera, behin betiko kokalekuari dagokionez.

11. artikulua. Arrapalak eraikin barruan.

1. Rampas en el interior del edificio.

Las rampas que se realicen en el interior de la edificación, en las zonas comunes, cuya actuación afecte a propiedades de particulares y, siendo obligada y necesaria su ejecución para lograr la accesibilidad de quienes sean residentes al interior de sus viviendas, podrán acogerse al régimen de expropiación previsto en esta ordenanza siempre y cuando concurren las circunstancias que determina el Título V de esta Ordenanza.

2. Rampas exteriores de la edificación.

Cuando la anterior solución, es decir, las rampas de accesibilidad, sean inviables técnicamente, de acuerdo a informe razonado de los Técnicos Municipales, dentro de la edificación, las personas interesadas podrán solicitar la realización de rampas de accesibilidad que, tanto si ocupan espacios privados de uso público como la vía pública, o espacios de uso y dominio público, quedarán sujetas a la pertinente concesión administrativa municipal para su ocupación.

Artículo 10. Justificación de la solución adoptada.

Los proyectos técnicos o, en su caso, los estudios previos a que alude el Art. 22, deberán justificar de forma razonada la elección del emplazamiento escogido para la rampa. En caso de que la propuesta contemple, en definitiva, la ubicación en suelo de uso público deberá justificarse, aportando y detallando las razones que, en su caso, impidan la ubicación en el interior del edificio.

Los servicios técnicos municipales podrán, a la vista de los argumentos aportados, requerir la información o documentación que consideren precisa sobre cualquier emplazamiento posible, todo ello con objeto de perfeccionar la propuesta en cuanto a su ubicación definitiva.

Artículo 11. Rampas en el interior de la edificación.



Usurbilgo Udala

Arrapalen diseinuari eta ezaugarri teknikoari dagokienez, aipatutako 68/2000 Dekretuaren V. eranskinean –Eraberritzeak izenekoa– adierazten diren parametroak aintzat hartu beharko dira.

Arrapalak jartzeak ezingo du inolaz ere murriztu eskailera eta pasilloen zabalera suteen kontra babestearen alorrean indarrean dagoen araudia eta irisgarritasunari nahiz igarogarritasunari buruzko parametroak interpretatzeko irizpideak interpretatzearen ondoriozko gutxienekoetatik beherako neurrietara. Halaber, egiturari dagozkion arazoiek, arrazoi formalek edo ekonomikoek neurri horiek zorrotz betetzen utziko ez balukete, interesdunen premia zehatzei erantzungo lieketen beste neurri batzuk hartu ahalko dira, baldin eta beti ere, Udal Zerbitzu Teknikoen aldeko txostena lortu badute aldeaz aurretik.

12. artikulua. Kanpoko aldean kokatutako arrapalak.

Arrapala eraikinaren barruan egitea ez dela bideragarria justifikatzen denean, arrapala egiteko baimena eman daiteke eraikinaren aldamenean dagoen kanpoko espazioa okupatuta.

Hartutako konponbideak formalki eraikinaren fatxadan integratuta egon beharko du formei eta neurriei, erabiltzen diren materialei eta eraikinaren irisgarritasun arazoan konponketari dagokionez.

## II. KAPITULUA. PLATAFORMA JASOTZAILEAK

13. artikulua. Definizioa eta sailkapena.

Horrelako aparatu jasotzaileak, beren soiltasun teknikoagatik eta egitura-elementuetan batere eraginik ez izateagatik-edo oso gutxi dutelako- erraz jar daitezkeen laguntza teknikoak dira.

Edozein modutan ere beste konponbide

Las rampas contemplarán en cuanto a diseño y características técnicas los parámetros contenidos en el Decreto 68/2000, ya citado, en su Anejo V titulado Reformas.

La incorporación de las rampas no podrá reducir en ningún caso la anchura de escaleras y pasillos a dimensiones inferiores a las mínimas deducidas de los criterios de interpretación de la normativa vigente en materia de protección contra incendios y de los criterios de interpretación de los parámetros de accesibilidad o practicabilidad. No obstante, si razones de tipo estructural, de forma o económicas impidieran el estricto cumplimiento de aquellas dimensiones, podrán adoptarse otras que satisfagan las necesidades concretas de las personas interesadas, siempre y cuando cuenten con informe favorable de los Servicios Técnicos Municipales.

Artículo 12. Rampas situadas en el exterior.

En los casos en que se justifique la inviabilidad de ejecutar la rampa dentro de la edificación, podrá autorizarse la realización de la misma ocupando el espacio exterior colindante a la edificación.

La solución adoptada deberá estar formalmente integrada con la fachada del edificio en lo referente a la forma y dimensiones, los materiales empleados y a la resolución de los problemas de accesibilidad del edificio.

## CAPITULO II. PLATAFORMAS ELEVADORAS

Artículo 13. Definición y clasificación.

Este tipo de aparatos elevadores son ayudas técnicas cuya instalación se caracteriza por su sencillez técnica y la poca o nula afección a elementos estructurales.

No obstante, sólo se emplearán las



Usurbilgo Udala

teknikorik ez dagoenean edo ekonomikoki bideragarritasunik ez dagoenean bakarrik erabiliko dira plataformak. Beraz, instalazio hori ez da hartuko lurzoru publikoaren okupazioak edo desjabetzeak eskatzen dituzten beste konponbide batzuk eragozteko aukera legez.

14. artikulua. Ezaugarri teknikoak eta kokapena.

Plataformen ezaugarri teknikoak eta diseinuari dagokionez, 68/2000 Dekretuaren III. Eranskinean-erakinen eraikigarritasunari buruzko baldintza teknikoak-adierazten diren parametroak bete beharko dira. Halaber, egiturari dagozkion arazoiek, arrazoi formalek edo ekonomikoek neurri horiek zorrotz betetzen utziko ez balukete, interesdunen premia zehatzei erantzungo lieketen beste neurri batzuk hartu ahalko dira, baldin eta beti ere, Udal Zerbitzu Teknikoen aldeko txostena lortu badute alde zuzenetik.

Lekualdatze plataformek autonomia pertsonalaren maila handiena bermatzen saiatuko da, ahal dela, hirugarren pertsonak ahalik eta gutxienetan esku-har behar dezan. Era berean, sektoreko araudi teknikoak eskatutako baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

### III. KAPITULUA. IGOGAILUAK

15. artikulua. Tipologia.

Aparatu jasotzaileen alorrean, eta Ordenantza honen helburua lortze aldera hobetu beharrekotako diren egoera guztietan, tipologia hauei aplikatuko zaie araudia:

Ordenantza honen aplikazio eremuan sartzen diren eraikinak, lehendik funtzionatzen duten igogailuak izan arren irisgarritasunaren alorrean gabeziak dituztenak, igogailua beheko solairuan hastzeko lekua atari-sarrerakoaz beste kota batean dagoelako edo mugikortasun murriztuko pertsonen igogailua erabiltzen uzten ez dieten beste arrazoi batzuk daudelako.

plataformas cuando no haya otra solución técnica o económicamente viable. En este sentido no se considerará su instalación como alternativa, para evitar otras soluciones que impliquen expropiaciones u ocupaciones de suelo público.

Artículo 14. Características técnicas y ubicación.

Las plataformas cumplirán, en cuanto a características técnicas y de diseño, los parámetros que contempla el Decreto 68/2000 en su Anejo III. Condiciones técnicas sobre la accesibilidad a los edificios. No obstante, si razones de tipo estructural, de forma o económicas impidieran el estricto cumplimiento de aquellas dimensiones, podrán adoptarse otras que satisfagan las necesidades concretas de las personas interesadas, siempre y cuando cuenten con informe favorable de los Servicios Técnicos Municipales.

Se procurará que las plataformas de traslación garanticen el mayor nivel de autonomía personal, minimizando la eventual intervención de terceras personas. Así mismo, deberán cumplir con cuantos requisitos técnicos exijan la normativa técnica sectorial.

### CAPITULO III. ASCENSORES

Artículo 15. Tipología.

La aplicación, en materia de aparatos elevadores y en el conjunto de situaciones a mejorar con el propósito de esta ordenanza, concierne a las siguientes tipologías:

Los edificios incluidos en el ámbito de aplicación de esta ordenanza, que cuentan con ascensores en funcionamiento pero que presentan carencias en materia de accesibilidad por realizarse su embarque en planta baja a una cota diferente de la de ingreso en el portal o por otras razones que impidan su uso a personas con movilidad reducida.





Usurbilgo Udala

Halakorik ez duten eraikinak, igogailu bat berritik instalatzeko aukera ematen duten ezaugarriak badituzte.

Egoera bi horiek, besteak beste, araudi honen helburu nagusia eta jomuga dira, eta, horrenbestez, Ordenantza honen baitan irisgarritasun egoerak hobetze aldera taxutzen diren jarduerak oro dira halakoetan erabat aplikatzekoak.

#### 16. artikulua. Igogailu berrien kokalekua.

Irisgarritasun egoerak hobetzeko proposamen funtzionalak, igogailuak instalatzea oinarri dutenak, era hauetakoak izan ahalko dira:

##### 1. Igogailua eraikinaren barruan jartzea.

Eraikinaren jatorrizko gotor kapaza aldatuko ez duten egoera posibleak hartzen ditu atal honek bere baitan, hau da: Eraikinaren sakonera eraikia ez da aldatuko, ezta fatxadak ere, eraikinak ez du kanpotik antzemateko moduko itxuraldaketa jasango, ez bada teilatuplanoan makineriaren kaxeta agertzea. Egoerak hauexek izan daitezke:

##### 1.1. Eskailera-zuloan:

Konponbideak elementu komunei eragingo dien egoera, inoiz elementu pribatiboren bati ere eragingo badio ere.

##### 1.2. Barruko patioan.

Egoera horrek hartzen ditu, bai argi-patioak, bai fatxadara irekitako patioak, baina beti ere eraikinaren jatorrizko fatxadak eratzen dituzten planoen barruan.

##### 1.3. Egoera berezietan.

Dena delako proiektuan behar bezala azaldu beharko den egoera zehatza eta partikularra.

Los edificios que, carentes de tal prestación, reúnen las características que permitirían la instalación ex novo de un ascensor.

Ambas circunstancias, a parte de otras, constituyen la principal finalidad de esta normativa y, por ello, todas las acciones tendentes a la mejora de las condiciones de accesibilidad que en esta ordenanza se incluyen, resultan de plena aplicación.

#### Artículo 16. Emplazamiento de los nuevos ascensores.

Las propuestas funcionales de mejora de las condiciones de accesibilidad que se basen en la instalación de ascensores, pueden presentar las siguientes situaciones:

##### 1. Ubicación del ascensor en el interior del edificio.

Comprende este apartado las situaciones posibles que no modifican el sólido capaz original del edificio, es decir, no se altera el fondo edificado del inmueble, ni las fachadas, ni éste sufre una distorsión perceptible desde el exterior, salvo la eventual aparición del casetón de la maquinaria en los planos de cubierta. Dichas situaciones pueden ser:

##### 1.1. En caja de escalera.

Situación con afectación de elementos comunes y que, ocasionalmente, alcanza a otros privativos.

##### 1.2. En patio interior.

Situación que comprende tanto los patios de luces como los patios abiertos a fachada, pero siempre al interior de los planos que configuran las fachadas originales del edificio.

##### 1.3. En situaciones especiales.

Situación concreta y particular que deberá explicarse convenientemente en el proyecto pertinente.



Usurbilgo Udala

1.4. Igogailua patioan (etxadiko patioan, lursaileko patioan, argi-patioan edo fatxada nagusira edo atzeko fatxadara ematen duen patioan) instalatzea, argi-patioko baldintzak kontuan izanik betiere.

Igogailua patioan instala daiteke, patiora ematen duten eta bizitzeko egokiak diren gelek nahitaezko osasungarritasun eta higienebaldintzak betetzen dituztela ziurtatuz gero betiere.

Patioaren neurriak direla medio, etxebizitzaren leihoen parean instalatzen bada igogailua, leiho horiei dagozkien gelak zertarako erabiltzen diren gorabehera, gela argiztatzeko eta aireztatzeko baldintzak betetzen direla ziurtatzeko behar adinako distantzia izan behar da zureriaren planoaren eta igogailuaren inguruko itxituraren artean, kasu honetan izan ezik: gela horiek bainugelatarako, garbigelatarako eta bizitzeko egokiak ez diren geletarako erabiltzen direnean.

Aurreko paragrafoaren helburuetarako, onargarria da igogailuaren kaxa etxebizitzaren leihoen parean gelditzea, baldintza hauek betetzen badira betiere:

- Leihoei dagozkien gelen (sukaldean, logelaren edo egongelaren) azalera erabilgarriaren 1/12ko hutsunea utzi behar da gutxienez igogailuaren kaxaren eta leihoen artean, eta hutsune horrek pasatzeko modukoa izan behar du.
- Patio-zati bat libre utzi behar da, eta zati horrek 12 m<sup>2</sup>-koa izan behar du gutxienez.
- Bizitzeko egokiak diren geletako leihoetatiko bista zuzenek 2 metrokoak izan behar dute gutxienez. Alde horretatik, argi zuzena da fatxada jakin bateko zureriaren planoaren eta edozein oztoporen, eraikuntzaren edo mugaren arteko distantzia. Bizitzeko egokiak diren gelak, berriz, hauek dira: batetik, etxebizitza bateko edo etxebizitzatarako erabiltzen den eraikuntza parekagarri bateko logelak, egongelak, jangelak, sukaldeak, egongelatarako eta

1.4. Instalación de ascensor en patio. (Patio de manzana, patio de parcela, patio de luces y patio abierto a fachada principal o posterior), debiendo adaptarse en todo caso a las condiciones de patios de luces.

Podrá autorizarse la instalación del mismo en patio, siempre que garantice las preceptivas condiciones de salubridad e higiene de las piezas habitables con huecos abiertos a dicho patio.

Cuando la instalación del ascensor, por dimensiones del patio, se efectúe frente a ventanas de viviendas, independientemente del uso de la estancia, a excepción de baños, aseos y huecos no vivideros, la situación del ascensor será tal que la distancia mínima desde el plano que contiene la carpintería hasta el cerramiento perimetral de este sea suficiente para asegurar las condiciones de iluminación y ventilación de dicha estancia.

A los efectos del párrafo anterior se considerará tolerable la instalación del ascensor cuya caja quede enfrentada a las ventanas de las viviendas siempre que:

- Se mantenga una superficie de huecos practicable no inferior a 1/12 de la superficie útil de la dependencia afectada (cocinas, habitaciones o salones).
- Quede libre una superficie de patio cuya superficie no sea inferior a 12 m<sup>2</sup>.
- La distancia mínima de vistas rectas de las ventanas de las piezas habitables no sea inferior a 2 metros. Se entiende por luces rectas la distancia medida desde el plano que contiene las carpinterías de una determinada fachada y cualquier obstáculo, edificación o lindero). Así mismo se entenderá como pieza habitable, cada una de las estancias o espacios de una vivienda o de usos residenciales asimilables destinadas a Dormitorio, Estar, Comedor, Cocina, Estar-Comedor y/o



Usurbilgo Udala

jangelatarako erabiltzen diren gelak eta egongelatarako, jangelatarako eta sukaldetarako erabiltzen diren gelak; eta, bestetik, egoteko, atsedean hartzeko edo lan egiteko erabiltzen diren eta, horrenbestez, pertsonak luzaroan erabiltzen dituzten gelak.

## 2. Igoailua eraikinaren kanpoaldean jartzea.

Nola edo hala eraikinaren jatorrizko gotor kapaza aldatzen duten egoerak hartzen ditu bere baitan atal honek; batez ere, haren kanpoko fatxadetako edozeini atxikitako atal bertikalak gehitzearen ondorioz egingo da hori, eta, horrenbestez, jatorrizko bolumetria aldatuz. Egoerak hauexek izan daitezke:

### 2.1. Espazio pribatuaren gainean.

Esku-hartzearen objektu den eraikina zein eraikuntza-tipologiaren baitan dagoen, eragina oso bestelakoa gerta daitekeeneko egoera. Horregatik, aplikagarri diren hirigintza parametroen analisia eta horien egokitzapena haiek zehatz ezagutuz eta Ordenantza honetan jasotako arauak aintzat hartuta baino ez dago horrelakorik egiterik.

### 2.2. Jabari publikoaren gainean.

Instalazioaren kokagunea jabari publikoko lur sailean egokitzen denean, eta haren okupazio pribatiborako administrazio-emakida alde zuzenetik eskuratu beharra izaten denean.

## 17. artikulua. Aukeratu den konponbidearen justifikazioa.

Proiektu teknikoetan edo, halakorik egin beharrik izanez gero, 22. artikuluan adierazten diren alde zuzeneko azterketetan, arrazoitu egin behar da igogailua jartzeko aukeratutako lekua. Aurreko artikuluan azaldu diren kokaleku posibleen ordenari jarraiki garatu behar da justifikazio hori, hurrenez hurren, kasuan kasu zerrendako puntuetako bakoitza aukeratzea galarazten duten arrazoiak ematen eta azaltzen

Estar-Comedor-Cocina, así como aquellas en las que se desarrollen actividades de estancia, reposo o trabajo que requieran la permanencia prolongada de personas.

## 2. Ubicación del ascensor en el exterior del edificio.

Comprende este apartado las situaciones posibles que, de alguna forma, modifican el sólido capaz original del edificio, generalmente por la adición de cuerpos de carácter vertical adosados a cualquiera de las fachadas exteriores y alterando con ello la volumetría original. Dichas situaciones pueden ser:

### 2.1. Sobre espacio privado.

Situación en la que, conforme a la tipología edificatoria en que se encuadre el edificio objeto de intervención, la afectación puede resultar de muy diferente naturaleza. Por ello, el análisis de los parámetros urbanísticos aplicables y su eventual acomodación sólo puede realizarse a la luz del conocimiento concreto de aquellos y de los preceptos de la presente ordenanza.

### 2.2. Sobre dominio público.

Situación en la que la ubicación de la instalación recae sobre terrenos de dominio público y quedan sujetas a la pertinente concesión administrativa para la ocupación privativa de aquel.

## Artículo 17. Justificación de la solución adoptada.

Los proyectos técnicos o, en su caso, los estudios previos a que alude el Art. 22, deberán justificar de forma razonada la elección del emplazamiento escogido para el ascensor. Esta justificación deberá desarrollarse siguiendo el orden de posibles emplazamientos descrito en el artículo anterior, de forma secuenciada, aportando y detallando las razones que, en su caso, impidan la elección de cada alternativa



Usurbilgo Udala

direlarik, harik eta egokientzat justifikatzen denera heldu arte. Aukeratzekoan, irisgarritasun arazoei konponbiderik egokiena eta gauzatzearen bidegarritasuna eskaintzen dien aukera lehenetsiko da.

Desjabetze- bidea edo espazio publikoari eragitea dakarten proiektu teknikoek justifikatu egin beharko dute ez dagoela arazoari konponbidea emateko beste aukerarik, nahiz eta kostu handiagoa izan, baina baita ere, kostua neurritik kanpoko ez bada. Neurritik kanpoko kostutzat hartuko da irisgarritasunaren hobekuntza lortzeko beste obra posible horren kostua bikoizten duena; kalkulu hori ateratzekoan kontuan hartuko dira beharrezkoa den lokal azalaren okupazio-kostuak eta han ezarritako jarduerari eragiteagatik edo jarduera laga behar izateagatik ordaindu beharreko kalte-ordainak.

Udal zerbitzu teknikoek, emandako argudioak aztertu ondoren, egokitzen jotzen dituzten argibideak edo agiriak eskatu ahal izango dituzte, edozein kokalekuri buruz, beti ere proposamena hobetze aldera, behin betiko kokalekuari dagokionez.

#### 18. artikulua. Irogailuen neurriak.

Irogailuen kabinen neurriak indarrean dagoen legedian jasota dauden irisgarritasun irizpideetara egokitu beharko dira. Halaber, egiturari dagozkion arrazoiek, arrazoi formalek edo ekonomikoek neurri horiek zorrotz betetzen utziko ez balukete, interesdunen premia zehatzei erantzungo lieketen beste neurri batzuk hartu ahalko dira, baldin eta beti ere, Udal Zerbitzu Teknikoen aldeko txostena lortu badute aldeaz aurretik.

Irisgarritasun edo igarogarriritasun egoera hobetzeko obrek ondasun pribatuak edo pribatiboak desjabetzea eskatzen badute, V. Tituluan-Desjabetze bidezko esku-hartzea azaltzen dena kontuan izan beharko da, aurreko paragrafoan adierazitakoari

enunciada, hasta alcanzar aquel que se justifique como más adecuado. En la elección se dará prioridad a la alternativa que ofrezca la mejor solución a los problemas de accesibilidad, y de la viabilidad de su ejecución.

Los proyectos técnicos que impliquen expropiación o afección al espacio público deberá justificar que no existen otras alternativas que den solución al problema, aunque tenga un mayor costo, siempre que éste no sea desproporcionado. Se entenderá como costo desproporcionado aquel que duplique el costo de la otra obra posible para conseguir la mejora de accesibilidad, serán tenidos en cuenta en ese cálculo los costos de ocupación de la superficie de local necesaria y los de la indemnización por cese o afección a la actividad implantada.

Los servicios técnicos municipales podrán, a la vista de los argumentos aportados, requerir la información o documentación que consideren precisa sobre cualquier emplazamiento posible, todo ello con objeto de perfeccionar la propuesta en cuanto a su ubicación definitiva.

#### Artículo 18. Dimensiones de los ascensores.

Las dimensiones de las cabinas de los ascensores se ajustarán a los criterios de accesibilidad o practicabilidad recogidos en la legislación vigente. No obstante, si razones de tipo estructural, de forma o económicas impidieran el estricto cumplimiento de aquellas dimensiones, podrán adoptarse otras que satisfagan las necesidades concretas de las personas interesadas, siempre y cuando cuenten con informe favorable de los Servicios Técnicos Municipales.

En el supuesto de que las obras de mejora de las condiciones de accesibilidad o practicabilidad requieran de la expropiación de bienes privativos, lo señalado en el párrafo anterior debe ponerse en relación con lo descrito en el Título V-Actuación por



Usurbilgo Udala

dagokionez.

### III.TITULUA ERAIKUNTZA BALDINTZAK

19. artikulua. Eraikinaren irisgarritasunari dagokionez.

Irisgarritasun egoera hobetzeko proiektuek instalazio mekaniko berriak jartzea edo lehendik daudenak berritzea- ibilbidea luzatuz, esate baterako- aurreikusten dutelarik, teknikoki posible diren jarduera edo esku-hartzeak oro aztertu beharko dira, eraikinean sartu arte, eremu libre pribatuetatik pasatzen diren balizko ibilbideetan dauden traba arkitektonikoak al bait gehien murriztu edo erabat desagerrarazte aldera.

Horrela, igogailuetako geralekuak eraikineko erabilera komuneko elementuen gainean jarri behar dira. Hala ere kasu arrazoitua izanez gero egin daiteke gune pribatuetan. Tipologiaren aldetik eta teknikoki ahal den guztietan, igogailuaren kabinara sartzeko aukera bermatu egin beharko da, bai kaletik, eta baita ere etxebizitza bakoitzera sartzeko dagoen gune komunetik ibilbide irisgarrien baina. Eraikinaren kanpoaldetik igogailuaren aurreneko sarbidera dagoen desnibela ezabatzeak aukerarik ez balego, beste aukera osagarriak planteatu beharko dira – plataforma jasotzaileak, eskailera- igogailuak edo arrapalak jartzea esate baterako- ezintasun hori arrazoi bidez justifikatu eta Udal Zerbitzu Teknikoek berariaz onartu ezean.

Era berean, ahaleginak egingo dira irisgarritasun edo igarogarriritasun baldintzak trastelekuetan, aparkalekuetan eta beste-lako elementu komunak dauden solairuetan bete daitezzen. Nolanahi ere, atal honen interpretazioak ezingo du ekarri berekin, inolaz ere. Ordenantza hau baliatuz irisgarritasun-obrak solairu edo elementu komun horietara luzatzeko galdatu ahal izatea, etxejabeen elkarte batek azalduko irizpidearen kontra.

20. artikulua. Suteen kontra babesteari

expropiación.

### TITULO III CONDICIONES CONSTRUCTIVAS

Artículo 19. En materia de accesibilidad en la edificación.

Los proyectos de mejora de las condiciones de accesibilidad que incluyan la dotación de nuevas instalaciones mecánicas, o reforma de las existentes (por ampliación del recorrido, por ejemplo), deberán complementarse con todas las acciones o intervenciones que puedan ser técnicamente posibles con el fin de minimizar o eliminar las barreras arquitectónicas existentes en el edificio y en los posibles recorridos que, por espacios libres privados, deban recorrerse hasta el ingreso en el inmueble.

Así el desembarco de las distintas paradas deberá efectuarse sobre elementos de uso común del edificio, si bien en casos razonados podrían por zonas privativas. Siempre que sea técnica y tipológicamente posible habrá de garantizarse el acceso a la cabina del ascensor tanto desde la calle como desde la zona común de entrada a cada vivienda a través de itinerarios accesibles. En el caso de no poder eliminar el desnivel desde el exterior del edificio al primer embarque de ascensor, se deberán plantear soluciones alternativas que complementen, tales como plataformas elevadoras, salva escaleras o rampas, salvo que se justifique motivadamente, y que sea expresamente aceptado por los Servicios Técnicos Municipales.

Así mismo, se procurará que las condiciones de accesibilidad o practicabilidad alcancen a las plantas destinadas a trasteros, plazas de aparcamiento u otros elementos comunes. No obstante, el criterio interpretativo de este apartado no vendrá nunca a exigir, por razón de esta ordenanza, la prolongación de las obras de accesibilidad a estas plantas o elementos comunes en contra del criterio manifestado por una comunidad de propietarios y propietarias.

Artículo 20. En materia de protección contra



Usurbilgo Udala

dagokionez.

Igogailua jartzeak ezingo du ekarri ebakuazio-ibilbidearen parte diren pasilloen zabalera indarrean den araudiak ezartzen duen gutxienekotik behera estutzea.

Existitzen diren etxebizitzetan irisgarritasun baldintzak hobetzeko igogailua ezarri nahi den kasuetan, ebakuazio-ibilbidearen parte diren eskaileretan, salbuespen gisa, 1,00 metro baino gutxiagoko zabalera onar litezke 0,8 metrotaraino, beti ere beste aukeren bideragarritasun tekniko eta ekonomiko eza justifikatu eta kasu bakoitzean segurtasuna hobetuko duten neurri gehigarriak ezartzen diren artean. Salbuespen kasu hauetan, Irisgarritasun Euskal Kontseiluari galdegingo zaio.

Igogailua eskailera-zuloan jarri nahi bada hura estutzeke, baina eskailera estutzeak igogailu-kabinaren zabalera handitzen utziko balu aulki gurgildun bat sartzeko behar den beste toki utzita, nahiz eta kabina hori arauzko neurrietara iritsi ez, eskailerari zabalera kenduta eman beharko litzaiotke konponbidea, konponbide horrek – 15. artikulua irizpidearen arabera- neurritik kanpoko gastu bat ekarriko lukeela justifikatu ezean.

Igogailu bat jarri ondoren, lehendik jarrita zeuden suteen kontrako ebakuazio-baldintzak murrizten edo galtzen badira, beharrezkotzat irizten diren neurri orekatzaileak edo konpentsatzaileak ezarrita ibituko dira: Larrialdietako argiak edo segurtasun-argiak, seinaleak, ke-detektagailuak, solairu bakoitzean eskuzko su-itxalgailu bat 21A 113B eraginekoa, ebakuazio-ibilbidearen seinaleak eta suteetatik babesteko elementuena, alarma-sakagailuak.

Eraikinaren kanpoko aldean irisgarritasun baldintzak hobetzeko egiten diren obrak (igogailuak, plataforma jasotzaileak edo arrapalak jartzea, esate baterako) ezingo dute kaltetu larrialdietarako ibilgailuak

incendios.

La instalación de ascensor no podrá suponer disminución de la anchura de los pasillos que formen parte del recorrido de evacuación por debajo del mínimo establecido en normativa vigente.

En edificios existentes, cuando se trate de instalar un ascensor que permita mejorar las condiciones de accesibilidad, excepcionalmente se podrá admitir en escaleras que formen parte del recorrido de evacuación una anchura menor a 1,00 hasta 0,8 m, siempre que se acredite la no viabilidad técnica y económica de otras alternativas que no supongan dicha reducción de anchura y se aporten las medidas complementarias de mejora de la seguridad que en cada caso se estimen necesarias. En estos casos excepcionales, se consultará al Consejo Vasco para la Accesibilidad.

En el supuesto que se pretenda la instalación de ascensor por hueco de escalera sin reducción de su ancho y dicha intervención permitiera ampliar el ancho de cabina posibilitando el acceso de una silla de ruedas, aún cuando no alcance las dimensiones reglamentarias, deberá actuarse sobre la misma, a no ser que se justifique como gasto desproporcionado, conforme al criterio del artículo 15.

La minoración de las condiciones de evacuación contra incendios preexistentes, a resultas de la instalación de un ascensor se contrarrestarán con la implantación, de las medidas compensatorias que se estimen necesarias: Alumbrado de emergencia y señalización, detectores automáticos de humos, un extintor portátil en cada planta de eficacia 21A 113B, señalización del recorrido de evacuación y de los elementos de protección de incendios, pulsadores de alarma.

Las obras de mejora de las condiciones de accesibilidad que se realicen en el exterior del inmueble (instalación de ascensor, plataformas elevadoras o dotación de rampas de acceso, por ejemplo) no podrán



Usurbilgo Udala

eraikinaren beraren nahiz aldamenekoen ondora hurbildu ahal daitezen indarrean dagoen legediaren arabera lehendik ezarria dagoen egoera.

21. artikulua. Gutxieneko aireztapen eta argiztapen azalerei dagokionez.

Irisgarritasun egoera hobetzeak ez du ekarri beharko berekin lehendik dauden argiztapen eta aireztapen azalerak edo, kasuan kasu, eraikuntza arauak aplikatzearen ondorioz nahitaezko diren gutxienekoak murriztea.

Lehendik dagoen eraikin baten igogailua jartzerakoan, eskailera-kaxaren elementu komunetan gutxieneko baldintza batzuk bermatu beharko dira aireztapenean eta argitasunean, eta solairuko bao bat gutxienez izango da  $m^2$  1etik gorako argiztapen azalarekin eta  $0,40 m^2$ ko aireztapen azalarekin.

Ez balego beste aukera bideragarriarik eta igogailua jartzeak argitasuna emateko eta aireztapenera zuzendutako baoak edo hutsarteak kentzea eskatuko balu, instalazioa egin ahal izateko, ondoko neurri osagarri hauek hartu beharko dira:

- Argiteri normaleko instalazio bat ipiniko da CTEDB.SUA-4 (segurtasuna, argitasun desegoki batek sortzen duen arriskuaren aurrean) dokumentuak edo hori ordezkatzeko duen araudiak eskatzen dituen betekizun guztiak beteko dituen. Horrez gain, instalazioak, presentzia hautemateko etengailuak izango ditu edo seinaleetarako eta larrialdietarako argiteria.
- Era berean, argiteriaren instalazioak CTE-DB.HE.3 (argitasuna emateko instalazioen energia-eraginkortasuna) dokumentuak edo hori ordezkatzeko duen araudiak eskatzen dituen betekizun guztiak egiaztatu beharko ditu.
- Eskailera kaxan jarriko den

menoscabar las condiciones previas de aproximación de los vehículos de emergencia al entorno del propio edificio o sus colindantes, en los términos de la legislación vigente.

Artículo 21. En materia de superficies mínimas de iluminación y ventilación.

La mejora de las condiciones de accesibilidad no podrá suponer una merma de las superficies de iluminación y ventilación preexistentes o, en su caso, de aquellas mínimas que resultasen obligatorias por aplicación de las normas de edificación.

La instalación de un ascensor en un edificio existente deberá garantizar condiciones mínimas de ventilación e iluminación de los elementos comunes de la caja de escaleras contando al menos con un hueco por planta, con superficie de iluminación superior a  $1 m^2$  y superficie de ventilación de al menos  $0,40 m^2$ .

En el caso de que no exista ninguna alternativa viable, y la instalación del ascensor requiera la supresión de los huecos destinados a iluminación y ventilación, deberán plantearse las siguientes medidas complementarias para poder realizar la instalación.

- Se proyectará una instalación de alumbrado normal que cumpla con todas las exigencias contenidas en el documento CTE-DBSUA-4 (Seguridad frente al riesgo causado por iluminación inadecuado) o normativa que la sustituya. Además la instalación contará con interruptores mediante detección de presencia o con alumbrado de señalización y emergencia.
- De igual modo la instalación de alumbrado proyectada deberá verificar las exigencias establecidas en el documento CTE-DB-HE-3 (Eficiencia Energética de las instalaciones de iluminación) o normativa que la sustituya.
- Se proyectará una ventilación para la



Usurbilgo Udala

aireztapenak CTE-DB-HS.3 (barruko airearen kalitatea) dokumentuak ezartzen dituen baldintza guztiak bete beharko ditu, instalatzaile onetsi batek hala dela ziurtatu behar du.

Horrela, eraikuntza-konponbide egokiak proposatu beharko dira proiektu teknikoetan, behar diren eraberritze lanak direla medio aurreko paragrafoan adierazitakoa beteko dela bermatze aldera.

#### IV TITULUA DOKUMENTAZIO ETA TRAMITAZIO ADMINISTRATIBOA

##### 22. artikulua. Aldez aurreko azterketa.

Irisgarritasun egoera hobetzeko obrek AASSetako katalogoaren baitako eraikin bati eragiten badiote, eta haren fatxadetan, teilatuan edo estalkian edo egiturazko elementuetan esku hartu behar bada, aldez aurreko banako azterketa bat egin beharko da, eta bertan, hautatutako konponbidea 10. eta 17. artikuluetan aurreikusi bezala justifikatzeaz gain, proposamenean aurreikusitako eraginaren forma-, konposizio-, banaketa- eta eraikuntza-tratamendua jorratu beharko da, udala guztiaren jakinaren gainean egon dadin.

Aldez aurreko azterketa horrek dokumentu hauek jaso beharko ditu:

- Eraikinari buruzko memoria deskriptiboa eta haren eraikuntza-ezaugarriak.
- Altxaketen argazki-dokumentazioa, horietan esku hartzeko asmoa badago behintzat.
- Proposatutako esku-hartzearen azalpena eta justifikazio arrazoitua 10. edo 17. artikuluetan adierazitakoaren arabera, kasuan kasukoa.

Administrazioaren ebazpenak aldez aurreko azterketa onetsi ahal izango du, eta, hala bada, egokitzen jotzen diren baldintzak

caja de escaleras que cumpla con las exigencias establecidas en el documento CTE-DB-HS - (Calidad del aire interior) y que lo certifique un instalador acreditado.

Así, los proyectos técnicos deberán proponer las soluciones constructivas oportunas, en orden a garantizar, mediante las reformas a que hubiera lugar, el cumplimiento de lo prescrito en el párrafo precedente.

#### TITULO IV DOCUMENTACION Y TRAMITACIÓN ADMINISTRATIVA

##### Artículo 22. Estudio Previo.

Cuando las obras de mejora de las condiciones de accesibilidad afecten a un edificio incluido en el Catálogo de las NNSS, de tal modo que se intervenga sobre cualquiera de las fachadas, cubiertas o elementos estructurales, deberá acometerse la elaboración de un estudio previo individualizado que, además de incluir la justificación de la solución adoptada prevista en los Arts. 10 y 17, aborde el tratamiento formal compositivo, distributivo y constructivo de las afecciones previstas en la propuesta, todo ello con objeto de someterlo a la consideración del Ayuntamiento.

Este Estudio Previo deberá constar, de la siguiente documentación:

- = Memoria descriptiva del edificio y sus características constructivas.
- = Documentación fotográfica de los alzados, si es que se pretendiera intervenir en ellos.
- = Descripción de la intervención propuesta y su justificación razonada conforme a los artículos 10 ó 17, según proceda.

La resolución administrativa podrá aprobar el Estudio Previo, en cuyo caso incluirá las condiciones que se estimen pertinentes –





Usurbilgo Udala

jasoko ditu bere baitan-egingo den proiektu teknikoan derrigorrez bete beharrekoak izango diren baldintzak-edo eskuhartze proposamena ezetsi.

### 23. artikulua. Prozedura.

Hirigintza baimena edo lizentzia tramitatzeari dagokionez, administrazio prozedurei aplikagarri zaien legedian xedatutakoa izango da aintzat hartuko dena, baita AASSetan xedatutakoa eta Ordenantza honetan aurreikusitakoa ere, nahiz eta, hobekuntzarako esku-hartzeak eraikinaren fatxadari edo jabari edo erabilera publikoko espazioei eragiten dietenean, beharrezkotzat jotzen diren nahi beste sektore-txosten eskatu ahal izango diren.

Lizentzia edo baimena emateak ez du esan nahi jarduketaren onspena nahitaez desjabetze bidez eman behar denik, hori, Ordenantza honetan geroxeago jasoko den tramitazioaren menpe beratuko baita.

Proposamenaren edukiak udalaren jabetzako ondasunen bati eragiten badio, administrazioaren isiltasuna egokitzen bada, ezetsizat jo beharko da ondorio guztietarako.

### 24. artikulua. Eskabidea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Aurrekoaren ildotik, erabilera nagusia bizileku kolektiboa duten eraikinetan irisgarritasun egoera hobetzeko obrak egiteko hirigintza-lizentzia edo baimenaren eskabidea agiri normalizatuan edo baliakidean egin beharko da, bidezkoa den proiektu teknikoarekin lagunduta, eta eskumena duen teknikari batek izenpetuta.

#### 1. Identitatea.

Zehatz identifikatu beharko da eskabidean zeinek eskatzen duen obra egiteko udal lizentzia edo baimena; eta noren izenean eta nor ordezkatzeko duen adierazita.

condiciones que serán de obligada observancia en el futuro proyecto técnico, o bien desestimar la propuesta de intervención.

### Artículo 23. Procedimiento.

A efectos de la tramitación de la licencia urbanística, se estará a lo dispuesto en la legislación vigente aplicable a los procedimientos administrativos, las NNSS y en lo previsto en la presente ordenanza, si bien, cuando la intervención de mejora afecte a la fachada del edificio o espacios de titularidad o uso públicos, podrán recabarse cuantos informes sectoriales se estimen necesarios.

La concesión de la licencia no implica necesariamente la aprobación de la actuación mediante expropiación, ya que ésta estará supeditada a la tramitación recogida más adelante en la presente ordenanza.

En caso de que el contenido de la propuesta incidiera sobre un bien de titularidad municipal, el silencio administrativo, de producirse, se entenderá negativo a todos los efectos.

### Artículo 24. Solicitud y documentación a presentar.

De acuerdo con lo anterior, la solicitud de licencia urbanística de obras para la mejora de las condiciones de accesibilidad en edificios cuyo uso predominante sea el residencial colectivo, se realizarán en documento normalizado o equivalente, acompañado del pertinente proyecto técnico, firmado por técnico competente.

#### 1. Identidad.

La solicitud a presentar identificará con precisión a la persona que solicite la licencia municipal de obras, indicando en nombre y representación de quién la efectúa.



Usurbilgo Udala

## 2. Proiektu teknikoa.

Proiektu teknikoak, indarrean dauden Araudiek galdatzen duten dokumentazioaz gain, dokumentu hauek ere jaso beharko ditu bere baitan:

- a) Eraikinari buruzko memoria deskriptiboa eta haren eraikuntza-ezaugarriak.
- b) Aukeratu den konponbidearen justifikazioa, Ordenantza honen 10. eta 17. artikuluetan aurreikusten denaren ildotik eta bertan adierazten den moduan.
- c) Aldez aurreko Azterketa tramitatu bada, inguruabar horren berariazko adierazpena edo udalaren azken txostenaren kopia.
- d) Eraikinari eta haren inguruari ateratako argazkiak, eta bereziki eraikinaren elementuei ateratakoak, instalazioa jartzea pentsatzen direnak; eraikinerako sarbideak eta pegoren barruko aldeak era bai, eraikina bere osotasunean hartuta irisgarritasunera egokitzeko aukerarik duen zehaztu ahal izateko.
- e) Dokumentazio grafiko zehatza, esku-hartzearen xede den eraikinaren partzela edo lur saila argi eta garbi identifikatuko duena.
- f) Dokumentazio grafiko deskriptiboa, esku-hartzeak eragingo dien solairuetako bakoitzaren egungo egoera azaltzen duena, honako hauek jasoko dituena: Banaketa eta erabilerak deskribatzen dituzten oinplanoak, kotak jasotzen dituzten oinplanoak, altxaketen planoak eta sekzio-planoa.
- g) Dokumentazio grafiko deskriptiboa, esku-hartzeak eragingo dien solairuetako bakoitzaren eraberritu ondorengo egoera azaltzen duena, honako hauek jasoko dituena: Banaketa eta erabilerak deskribatzen dituzten oinplanoak, kotak jasotzen dituzten oinplanoak, altxaketen planoak eta sekzio-planoa.

## 2. El proyecto técnico.

El proyecto técnico, además de la documentación exigible por la Normativa vigente, deberá contener la siguiente documentación:

- a) Memoria descriptiva del edificio y sus características constructivas.
- b) Justificación de la solución adoptada, conforme a lo previsto en los Art. 10 y 17 de la presente ordenanza, y en los términos que en estos se describen.
- c) En caso de que se hubiera tramitado Estudio Previo, bien manifestación expresa de tal circunstancia, o bien copia del informe final municipal.
- d) Reportaje fotográfico del inmueble y su entorno, ilustrando, en particular, los elementos de la edificación sobre los que se proyecta la instalación, incluyendo accesos al edificio e interiores de los portales para poder determinar la posibilidad de adaptación a accesibilidad del edificio en su conjunto.
- e) Documentación gráfica precisa que identifique con claridad la parcela del edificio objeto de intervención.
- f) Documentación gráfica descriptiva del estado actual de cada planta afectada por la intervención, constituida por: Planos de planta descriptivos de la distribución y los usos; planos comprensivos de las cotas; planos de los alzados; plano de sección.
- g) Documentación gráfica descriptiva del estado reformado de cada planta afectada por la intervención, constituida por: Planos de planta descriptivos de la distribución y los usos; planos comprensivos de las cotas; planos de los alzados; plano de sección.



Usurbilgo Udala

h) Proposatutako konponbidearen eta horren ezaugarri teknikoak idatzizko azalpen xehea.

i) Udal Zerbitzu Teknikoak proiektuaren helburua behar bezala definitzeko beharrezkotzat jotzen den edozein informazio.

### 3. Proiektu teknikoak zehaztutakoak.

Eraikin eta etxebizitzetarako sarbideen egokitzak proiektu teknikoan adieraziko dira zehaztasunarekin. Proiektuak, berari dagozkionaz gain, konponbide horietarako beharrezko diren aurreikuspenak jasoko ditu. Bere edukia nahiz izapidetzea, proiektu honekin onartzen diren agiritara lotuko dira.

Aipaturiko obra proiektu teknikoak, bestek beste, zehaztasun egokiaz azalduko ditu ondorengoak:

a) Ordenantza honetan ezarritako irizpideetara egokitzea, proiektua justifikatzen duten egoeren azalpena barne.

b) Aukeraren azterketa eta egin nahi denaren arrazoiketa, batez ere lokal edo etxebizitzaren desjabetzea egin nahi bada, haien galera partziala arrazoituz eta emandako proposamena arrazoituz beste balizko aukeren artean, guztia aurreko artikuluetan adierazitako irizpideei jarraiki.

c) Proposatutako irtenbideak, horrek eragindako eremuan, sor ditzakeen edozein motako eragin eta afekzioak (fisikoak, estetikoak, akustikoak eta abar) ebaluatzea.

h) Descripción escrita detallada de la solución propuesta y sus características técnicas.

i) Cuanta otra información se considere relevante para la correcta definición del propósito del proyecto, que sea requerido por los Servicios Técnicos Municipales.

### 3. Concreciones de los proyectos técnicos.

Las soluciones de adaptación del acceso a las referidas edificaciones y viviendas serán reflejadas en cada caso y con la precisión necesaria en el correspondiente proyecto técnico. Con esa finalidad, dicho proyecto incluirá, además de las generales propias del mismo, las previsiones específicas que resulten necesarias para la definición de dichas soluciones. Tanto su contenido como su tramitación se ajustarán a los criterios que a ese respecto se establezcan en los documentos que se elaboren y aprueben en desarrollo de este proyecto.

En todo caso, el proyecto deberá abordar los siguientes contenidos:

a) Su adecuación a los criterios establecidos en esta ordenanza, incluida la exposición de las circunstancias que lo justifiquen.

b) El análisis de alternativas, y justificación de la solución por la que se opta, especialmente si se pretende la expropiación de parte de propiedad privada como locales o viviendas, justificando las consecuencias de la pérdida parcial de la propiedad de aquéllos. Racionalizando la solución propuesta, tanto en sí misma, como frente a otras posibles soluciones que pudieran plantearse, en el contexto de los criterios establecidos en los artículos precedentes.

c) La evaluación de los impactos y afecciones de cualquier naturaleza –física, estética, acústica, etc.– que se deriven de la solución planteada en el ámbito afectado por la misma.



Usurbilgo Udala

- |   |  |
|---|--|
| <p>d) Eragin eta afekzio horiek zuzentzeko edo desagertzeko proposamenak, baita helburu horretarako egokiak diren material eta makinak erabiltzeko dagokionean ere.</p> <p>e) Hala badagokio, proposaturiko irtenbideak sortuko dituen eragindako lursailen, horien lurzatatze-baldintzen, eraikuntzaren lerroakaduren, lursail horien izaera juridikoaren eta abarren hirigintza araudiaren egokitzapenetara eta ordenantza honetan ezarritako irizpideetara egokitzea.</p> <p>f) Proposaturiko irtenbideak eragindako ondasun eta eskubide guztien zerrenda, ezaugarrien deskribapena eta titularren identifikazioa. Bai eta, hala balegokio, desjabetu beharreko ondasunen eta eskubideen balorazioa ere.</p> <p>g) Obrak burutzearen eta instalazioak ezartzearen kostua, horiek eragindako eraikinaren lursailak edota lokalak eskuratu edota erabiltzearen kostua barne, hala dagokionean.</p> <p>h) Jabeen elkartearen akordioa obra proiektua eta desjabetze proiektua onartzeko.</p> <p>i) Indarrean dagoen planeamenduan adierazitakoaren arabera, beharrezkoak diren beste edozein egoera eta alderdi.</p> | <p>d) Las propuestas de corrección o eliminación de dichos impactos y afecciones, incluso en lo referente a la utilización de los materiales y maquinarias que con ese fin resulten adecuados.</p> <p>e) Los reajustes que, en su caso, conlleve la solución planteada en el régimen urbanístico de los terrenos afectados, las condiciones de parcelación de los mismos, las alineaciones de la edificación, la naturaleza jurídica de esos terrenos, etc., y su adecuación a los criterios establecidos en esta ordenanza.</p> <p>f) La relación de todos y cada uno de los bienes y derechos afectados por la solución propuesta, la descripción de sus características, y la identificación de sus titulares. Así como la valoración de los bienes y derechos a expropiar, si fuese el caso.</p> <p>g) El coste de ejecución de las obras y de implantación de las instalaciones, incluido el de, en su caso, adquisición y/o disposición de los terrenos y/o locales o espacios de la edificación afectados por las mismas.</p> <p>h) Acuerdo de la Comunidad de Propietarios de aprobación del proyecto de obras y del expropiatorio.</p> <p>i) Cualesquiera otras circunstancias y extremos que, de acuerdo con lo indicado en el planeamiento vigente se estimen necesarios.</p> |
|---|--|

Hobekuntzarako esku-hartzeak eraikinaren patioaren bat ukitzen badu, ate-leihoak eragindako patio horretara dituzten etxebizitza guztien eta gainerako lokalen banaketa azaltzen duen dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da, igogailua instalatzeak etxebizitza horien higie baldintzetan zer-nolako eragina izango duen egiaztatzerik izan dadin.

Gutxienez ere honako hauek adierazi beharko dira dokumentazioan: Erabilerak, azalera erabilgarriak eta patiora ematen duen areto bakoitzaren ate-leihoen azalera.

Cuando la intervención de mejora alcance a patios del inmueble, deberá aportarse documentación gráfica en la que se refleje la distribución de todas las viviendas y el resto de locales que abran huecos al patio afectado a fin de verificar la incidencia de la instalación del ascensor en las condiciones de higiene de dichas viviendas.

La documentación contendrá, como mínimo, expresión de los usos, superficies útiles y superficie de los huecos de cada dependencia que abra a dicho patio.



Usurbilgo Udala

Etxebizitza edo lokal baten egungo egoeraren datuak lortzea ezinezkoa balitz, eta baimena edo lizentzia eskatzen duenak hala justifikatzen badu, dena delako lokal edo etxebizitza horrek udal baimena jaso duen proiektuan zituen datuak aurkeztu beharko dira.

Hobekuntza esku-hartzeak solairuak, lokalak edo bizileku erabileraz bestelakoetarako espazioak ukitzen baditu, nahikoa den dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da, non zehaztasunez azaldu beharko baita zenbatekoa den horietan egin beharreko eraberritzea, baita eraikuntza-eragin eta konponbideak eta aplikagarri diren hirigintza-parametroak ere.

Irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzeak eraikinaren fatxadari eragiten badio, edo hari itsasten bazaio, kokalekuaren planoak aurkeztu beharko da; oinezkoentzat eta ibilgailuentzat mugatuta dauden ibilbideak irudikatu beharko dira bertan, eta egiteko asmoa dagoen elementuak nola eragingo dien zehaztu. Mugekiko eta beste eraikinekiko tartea ere irudikatu egin beharko baita.

Proiektugileak, bere erantzukizunpean eta aurretik sustatzailearen adostasuna jasota, Oinarrizko dokumentuek aurreikusten dituzten konponbideez aparte konponbideak hartuko balitu, justifikatu egin beharko du diseinatu duen jarduketak horrek OD aplikatzen eskuratuko liratekeenaren pareko ezaugarriak behintzat badituela (CTE edo EKT-ren 5.3. artikulua, martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuari dagokionez, 2010eko apirilaren 22ko EAOean argitaratutakoa) baldin eta Ordenantza honetan ezarritako gutxieneko parametroak betetzen badira.

Jarri beharreko neurri konpentsatzaileen zerrenda eta kokalekua.

Obrak egiten dauden bitartean hartu behar diren prebentziozko neurriak, eraikineko erabiltzaileen ibilerak segurtasun berme osoa izan dezan, eta bereziki, igogailua jartzeak, eskailera osoa edo eskailera-zatiak berregitea badakar.

Cuando no fuera posible obtener los datos de la situación actual de alguna vivienda o local, y así se justifique por quien solicite la licencia, se aportarán los datos de dicho local o vivienda correspondientes al proyecto que fue objeto de la licencia municipal.

Cuando la intervención de mejora alcance, aun parcialmente, a plantas, locales o espacios destinados a usos diferentes del residencial, se aportará documentación gráfica suficiente que describa, con precisión, la intensidad de la reforma necesaria en éstos, las afecciones y soluciones constructivas y los parámetros urbanísticos de aplicación.

Cuando la intervención de mejora de la accesibilidad alcance o se adose a la fachada del edificio, deberá aportarse plano de emplazamiento en el que se representen los recorridos peatonales y rodados existentes (acotados) y se defina la incidencia del elemento proyectado sobre éstos. Así mismo, deberá representarse la separación a los linderos y otros edificios.

Si el proyectista, bajo su responsabilidad y previa conformidad del promotor, adoptara soluciones alternativas a las previstas en los Documentos Básicos, justificará que la actuación diseñada alcanza prestaciones, al menos equivalentes, a las que se obtendrían por aplicación de las DB (artículo 5.3 del CTE, en relación con el Real Decreto 410/2010, de 31 de marzo, publicado en el Boletín Oficial del Estado de 22 de abril de 2010), siempre que se cumplan los parámetros mínimos establecidos en la presente ordenanza.

Relación y ubicación de las medidas compensatorias a instalar.

Medidas preventivas a adoptar durante el curso de las obras que garanticen el tránsito de los usuarios del inmueble con plenas garantías de seguridad, en particular en el supuesto de que la instalación del ascensor conlleve rehacer el conjunto de la escalera



Usurbilgo Udala

25. artikulua. Igogailu-instalazioak eragindako lurzorua eta/edo eraikinaren alde aurreko baldintzei buruzko berriazko dokumentazioa.

Hobekuntza elementua instalatzeko erabakiaren hitzez hitzeko egiaztagiria eman beharko da, jabetza horizontalaren legeak dioena betetzen dela egiaztatuz, edo, kasua denean, ezintasuna duten pertsonen traba arkitektonikoak kentzeko higiezinaren gaineko jabetzaren mugei buruzko maitzaren 30eko 15/1995 Legeak dioena, deialdi, quorum, gehiengo eta jakinarazpenei buruz. Etxejabeen elkarteak idazkariak egin beharko du ziurtagiri hori.

Higiezinako lokalei eragitea eta lokal horien azalera eta sekzioan izango duen eragina.

Halaber, irisgarritasuna hobetzeko egiteko den elementuak hartuko dituen espazioen jabetzari dagokionez, publikoa ala pribatua den zehaztu beharko da, eta, pribatua bada, komuna edo pribatiboa den.

Era berean besteren erabilera edo gozamen eskubiderik izanez gero, berriaz adierazi beharko da.

Proiektuan irisgarritasuna hobetzeko aurreikusten diren elementuen instalazioak eragingo diren ondasun eta eskubide guztiak erabilgarri dauden ala ez adierazi beharko da, eta kasua denean, eragindako partikularrek lagapena edo esku-aldatzea egiteko konpromisoa jasotzen duena ere erantsi egingo da.

26. artikulua. Proiektu teknikoa tramitatze eta onartzeko baldintzak.

Proiektu teknikoa tramitatu eta onartu egingo da, indarren dauden lege xedapenetan ezarritako irizpideei jarraiki, obrak burutzeko eta instalazioetarako udal lizentzia egokia eskatu eta eskuratzearen ondorioetarako.

o sus tramos.

Artículo 25. Documentación específica relativa a las condiciones previas del suelo y/o edificación afectados por la instalación de los elementos de mejora.

Se deberá aportar certificación literal del acuerdo de instalación del elemento de mejora, acreditándose el cumplimiento de lo establecido en la legislación de propiedad horizontal o, en su caso, en la Ley 15/1995, de 30 de mayo, sobre límites del dominio sobre inmuebles para eliminar barreras arquitectónicas a las personas con discapacidad, en cuanto a convocatorias, quórum, mayorías y notificaciones. Dicha certificación será expedida por el Secretario o Secretaria de la Comunidad.

Afecciones a locales del inmueble y la incidencia, en superficie y en sección, sobre los mismos.

Igualmente, en relación con la titularidad de los espacios a ocupar por el futuro elemento de mejora de accesibilidad, se determinará su carácter público o privado, y en este último caso, su naturaleza común o privativa.

Así mismo se manifestará expresamente la existencia, en su caso, de derechos de uso y/o disfrute por parte de terceros.

Se pondrá de manifiesto la disponibilidad, o no, de la totalidad de los bienes y derechos afectados por la instalación de los elementos de mejora de accesibilidad previstos por el proyecto, adjuntando, en su caso, el compromiso de los particulares afectados de efectuar aquella cesión o transmisión.

Artículo 26. Condiciones de tramitación y aprobación del proyecto técnico.

El proyecto técnico será tramitado y aprobado de conformidad con los criterios establecidos en las disposiciones legales vigentes a los efectos de la solicitud y obtención de la correspondiente licencia municipal para la



Usurbilgo Udala

lido horretan, udal zerbitzu teknikoek zehatz-mehatz aztertuko dituzte eragindako etxebizitzeta eta eraikinetara sartzeko proiektuan proposaturiko irtenbideak.

Azterketa horretan agertuko dira behar bezala arrazoiturik, besteak beste, proposatutako irtenbidearen arrazoizkotasunari buruzko ebaluazioa eta irtenbideak sor ditzakeen eragin eta afekzioena, Ordenantza honetan eta indarrean dagoen hirigintza planeamenduan ezarritako baldintza eta irizpideen baitan. Proiektua udalak atzera bota dezake ikusten bada baldintzak ez direla betetzen, bai alderdi teknikotik begiratuta bai irisgarritasun eskubidearen balorazioa ez bada nagusitzen beste eskubide publiko edo pribatuen gainetik. Orduan arrazoitutako ebazpena emango da ezestearen zioak adierazita.

27. artikulua. Lehen erabilerako eta funtzionamendurako hirigintzako lizentzia.

Baimendutako instalazioa martxan jarri aurretik, lizentziaren jabeak lehen erabilerako eta funtzionamendurako hirigintzako lizentzia eskatu beharko du.

28. artikulua. Epeak.

Lizentziak edo baimenak berak zehaztuko du-obraren arabera zein den egiteko hasteko eta amaitzeko epea.

Lizentzia eman ondoren, obrak egiten hasteko bertan ezarriko den epea eten egingo da Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskaera egin zaiola egiaztatzen bada harik eta horrek bere ebazpena eman arte. Desjabetze espedientearen hasierak ere ondorio berbera sortuko du.

Obrak amaitzen direnean ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira: Obra amaierako ziurtagiria eta likidazioa eta instalazioari ateratako argazkiak.

ejecución de obras e instalaciones.

En ese contexto, los servicios técnicos municipales analizarán con la debida precisión las soluciones propuestas en dicho proyecto para el acceso a las viviendas y edificaciones afectadas.

Dicho análisis incluirá, entre otros extremos, la evaluación, debidamente justificada, de la racionalidad de la solución planteada, así como de las afecciones e impactos derivados de la misma, en el contexto de los criterios y condiciones establecidos en el planeamiento urbanístico vigente y en esta Ordenanza, pudiendo ser rechazado el proyecto por el Ayuntamiento si se considera que no se dan las condiciones precisas para su otorgamiento bien desde un punto de vista técnico, bien como consecuencia de la valoración de que el derecho a la accesibilidad no resulta predominante respecto a los derechos públicos o particulares afectados, en cuyo caso, se dictará resolución motivada en la que se justifiquen las causas de la desestimación.

Artículo 27. Licencia urbanística de primera ocupación y funcionamiento.

Con carácter previo a la puesta en marcha de la instalación autorizada, el titular de la licencia deberá de solicitar licencia urbanística de primera ocupación y funcionamiento.

Artículo 28. Plazos.

La licencia determinará, en función de la obra, el plazo para su comienzo y finalización.

Una vez concedida la licencia el plazo que en la misma se establezca para el inicio de las obras quedará en suspenso si se acredita la petición de solicitud de subvención a Gobierno Vasco, en tanto que éste no la resuelva. La incoación de expediente de expropiación surtirá el mismo efecto.

Al finalizar las obras deberá presentar: Certificación y Liquidación de Fin de Obra, y fotografías de la instalación.



Usurbilgo Udala

V. TITULUA  
ADMINISTRAZIO EMAKIDARI BURUZKO  
ARAUAK

29. artikulua. Lehia publikoa baztertzea.

Eraikinen kanpoaldean igogailu-dorreak jartzeko obren erabilera- edo aprobetxamenduz ezaugarri bereziak aintzat hartuta, justifikatuta dago lehia publikora ez ateratzea. Hala, emakidaren zuzeneko esleipena ahalbidetu daiteke, betiere, kontuan hartuta Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legeko 93.1. artikuluan ezarritakoa 137.4.e. artikuluan aurreikusitako kasuari lotuta, izan ere:

— Zuzeneko emakida igogailu-erabilera eskatzen den eremu publikoaren lursailaren mugakide den finakako jabekideen komunitatearen mesedetan egingo da.

—Erabili behar den lursail publikoaren dimentsioa txikia da. Bertan, gainera, ezin da eraiki tamaina txikia eta forma aintzat hartuta.

—Lortu nahi den xedearen bidez –finkak igogailu komunitarioa izatea– eraikinean bizi direnen ongizate- eta kalitatealdintzak hobetzen dira.

30. artikulua. Urteroko alokairuaren kanonaren salbuespena.

Lurzoru publikoa erabiltzeko jabari publikoko emakidaren berezitasuna dela-eta, igogailu bat instalatzeko, urteroko alokairuaren kanonaren salbuespena justifikatuko da lurzoru publikoa erabiltzeagatik, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legeko 93.4. artikuluan xedatutakoaren babesean.

VI. TITULUA  
DESJABETZEAREN BIDEZKO  
JARDUNBIDEA

31. artikulua. Desjabetzeko irizpide

TITULO V  
NORMAS SOBRE LA CONCESIÓN  
ADMINISTRATIVA

Artículo 29. Exclusión de la concurrencia pública.

Considerando las peculiares características del uso o aprovechamiento de las obras tendentes a la instalación de torres de ascensores en el exterior de edificios existentes, queda justificada la exclusión de concurrencia pública, posibilitándose la adjudicación directa de la concesión en base a lo dispuesto en los arts 93.1 en relación al supuesto previsto en el art. 137.4.e, ambos de la Ley 33/2003 de Patrimonio de las Administraciones Públicas, ya que:

—La concesión directa se efectuará en beneficio de la Comunidad de Propietarios de una finca que es colindante a los terrenos de zona libre pública sobre los que se solicita el uso de ascensor.

—Se trata de una reducida dimensión del terreno público a utilizar que por su forma y pequeña extensión resulta inedificable por sí mismo.

—La finalidad perseguida, dotar a la finca de un ascensor comunitario, mejora las condiciones de bienestar y calidad de vida de los residentes.

Artículo 30. Exención del canon de alquiler anual.

Dada la especificidad de la concesión demanial de uso del suelo público, para la instalación de un ascensor, queda justificada la exención del canon de alquiler anual por la ocupación de suelo público, a tenor de lo dispuesto en el artículo 93.4 de la Ley 33/2003 de Patrimonio de las Administraciones Públicas.

TITULO VI  
ACTUACIÓN MEDIANTE EXPROPIACIÓN

Artículo 31. Criterios generales para la





Usurbilgo Udala

orokorrak.

LSU legearen 177. artikulua araberan onura publiko edo interes sozialekotasat joko da, eragindako lur sailak eta eraikinaren parteak nahitaez desjabetzeari edo aldi baterako okupatzeari dagokionez, Ordenantza honetan jaso eta bizitegi-eraikinetako etxebizitzetara irisgarritasun baldintzak hobetzea helburu duten obra edo jardueraren bat gauzatzea.

Baldin eta egiaztatzen bada, behar den udal lizentzia edo baimena jaso ondoren, obrak egiterik ez dagoela, horiek osorik nahiz partez eragingo dieten ondasun eta eskubide guztiak erabilgarri ez daudelako, eskumena duen udal agintaritzak behar den desjabetze-espedita abiaraztea erabaki ahal izango du, horren onuradun izatekoa denak hala eskatuta.

Oro har, irisgarritasuna edo igarogarritasuna hobetzeko baimentzen diren obra eta jarduerak eragiten dieten ondasun eta eskubide guztiak hartu ahal izango ditu desjabetzeak bere baitan. Ostera, obrak gauzatzeko eta egiteko behar beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak izango dira horren eraginpean geratuko diren bakarrak, egitaritzarako finkatutako epeetan onuradunaren eskura ez daudenak alegia.

Desjabetzeak eragiten dituen ondasun zein eskubide pribatuak industria, merkataritza edo ostalaritza jarduerari atxikiak daudenean, edo zerbitzua ematen duenari, proposatutako kokapenaren arrazoia jaso beharko du proiektu teknikoak Ordenantza honen 10. eta 17. artikuluetan adierazitako irizpideei jarraikiz, bai eta eragina ahalik eta txikiena izan dadin saiatu ere.

32. artikulua. Udalari kontsulta egitea.

Eraikina irisgarritasunez hornitzeko obren sustatzaileak – pertsona bat edo entitate bat-kontsulta egin ahal izango dio udalari,

expropiación.

De conformidad con el artículo 177 de la L.S.U se considerará de utilidad pública e interés social, a los efectos de la expropiación forzosa, o de la ocupación temporal, de los terrenos y partes de la edificación afectados, la ejecución de alguna de las obras y actuaciones recogidas en la presente Ordenanza que tengan como fin la mejora de las condiciones de accesibilidad a las viviendas en edificaciones residenciales.

En el supuesto de que se acredite que, una vez autorizadas mediante la correspondiente licencia municipal, no pueden ejecutarse dichas obras por no disponer de la totalidad de los bienes y derechos afectados total o parcialmente por aquellas, la autoridad municipal competente podrá acordar la incoación del correspondiente expediente de expropiación a petición de quien haya de ser beneficiario o beneficiaria de la misma.

Con carácter general, la expropiación podrá alcanzar a la totalidad de los bienes y derechos relativos a la edificación afectados por las obras y actuaciones de accesibilidad o practicabilidad autorizadas. Sin embargo, sólo quedarán afectados aquellos estrictamente necesarios para la ejecución y operatividad de la obra, que, en los plazos establecidos de ejecución, no se encuentren a disposición de la persona beneficiaria.

En el caso de que los bienes y derechos privativos afectados por una expropiación estuvieran adscritos al ejercicio de una actividad industrial, comercial, hostelera o de prestación de servicios, el proyecto técnico razonará la ubicación propuesta, conforme a los criterios indicados en los artículos 10 y 17 de la presente Ordenanza, y procurará que la afección sea la mínima indispensable.

Artículo 32. Consulta al Ayuntamiento.

La persona o entidad promotora de las obras para dotar de accesibilidad al edificio podrá presentar una consulta ante el



Usurbilgo Udala

behar diren datuak erantsiz, hartara jakin ahal izateko kasu jakin horretan desjabetzea bideragarri den, batetik, eta desjabetze hori zein inguruabarretara egokitu beharko litzatekeen, bestetik.

Udalak aurreikusita dauden sarbide obra eta jarduerak gauzatzeko beha den lizentzia edo baimena eman aurretik nahiz baimen hori jaso ondoren aurkeztu ahal izango da kontsulta.

Kontsultarekin batera Ordenantza honen 22. artikuluan zehaztutako alde zuzeneko azterketa ekarriko da, eta baita ere, desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen balio ekonomikoari buruzko balioespen tekniko bat.

Udalak, eman zaizkion datuen arabera, planteatutako kasu horretan desjabetzearen bideragarritasunari buruzko erantzuna eman beharko du.

### 33. artikulua. Desjabetzeko eskabidea.

Desjabetzeko espedientea abiarazteko eskabidea honakoek planteatuko dute: Etxejabeen elkarteak, edo ezintasuna duten pertsonen traba arkitektonikoak kentzeko higiezin legez gaituta dauden pertsonen, hala ere, kasu horietako bietan, desjabetzearen onuraduna etxejabeen elkarte izango da.

Erabilera nagusia bizileku kolektiboa duen eraikin bat irisgarritasun edo igarogarritasunez hornitu ahal izateko desjabetzearen bitartez esku hartzeko eskabide orok behar adinako zehaztasunez justifikatu beharko dute esku-hartze sistema hori baliatzeko premia, baita onuradunak lepora dakizkiekeen betebeharrak betetzen direla ere, nahitaezko desjabetzearen alorrean indarrean dagoen legedian xedatutakoaren ildotik.

3. Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetze aldera, desjabetze espedientea abiarazteko eskabideari desjabetze proiektuak lagunguko dio. Desjabetze-proiektuak ondokoak jasoko ditu bere baitan:

Ayuntamiento que incluya los datos necesarios para conocer, por un lado, la viabilidad de la expropiación en el caso concreto y, por otro, las circunstancias a las que debería adaptarse la misma.

Dicha consulta podrá ser planteada tanto con anterioridad como con posterioridad a la concesión por el Ayuntamiento de la correspondiente licencia de ejecución de las obras y actuaciones de acceso previstas.

La consulta se acompañará del estudio previo detallado en el artículo 22 de esta Ordenanza, y de una estimación técnica sobre el valor económico de los bienes y derechos afectados por la expropiación.

El Ayuntamiento deberá responder, conforme a los datos suministrados, sobre la viabilidad de proceder a la expropiación en el caso planteado.

### Artículo 33. Solicitud de expropiación.

La solicitud de iniciación del expediente de expropiación será planteada bien por la Comunidad de Propietarios, bien por las personas habilitadas legalmente para solicitar la eliminación de barreras arquitectónicas en el inmueble, resultando en todo caso beneficiario de la expropiación dicha Comunidad de Propietarios.

Toda solicitud de intervención mediante expropiación con los fines expuestos de dotar de accesibilidad o practicabilidad a un edificio cuyo uso predominante sea el residencial colectivo, deberá contener la justificación con la precisión necesaria que avale el recurso a dicho sistema de intervención, así como el cumplimiento de las obligaciones atribuibles a las personas beneficiarias según lo establecido en la vigente legislación de expropiación forzosa.

3. A los efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, la solicitud e iniciación del expediente de expropiación se acompañará de proyecto de expropiación. El proyecto de expropiación incorporará:



Usurbilgo Udala

- |  |   |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Desjabetzearekin lotutako jabe elkarteak hartutako akordioen kopia.</li><li>- Onuradunak identifikatzea, horiek hauek izan daitezke: Jabe den Elkartea edo obrak egiteko behar den besteko gehiengo dutenek, jabetza horizontalari buruz indarrean dagoen legegaren arabera. Desjabetzearen onuradunak izan daitezke baita ezintasuna duten pertsonak, maiatzaren 30eko 15/95 Legeak dioen eran, epai irmoz eraikina edo higiezina egokitzeko obrak eskubidea dutela aitortu zaienean.</li><li>- Ondasunen edo eskubideen zerrenda, dena delako eraikinari irisgarritasuna eman ahal izateko halabeharrez hartu behar izango direnak. Horiek Erregistro-identifikazioa izango dute eta desjabetze horrek ondasun horiek duten betekizunari edo jarduerari egin diezaiokkeen ondorioak adieraziko dira.</li><li>- Ondasunen eta eskubideen titularrak identifikatzea.</li><li>- Desjabetzearen arrazoiak eta helburuak zehatz mehatz justifikatzea. Arrazoitu egin behar da, higiezina edo eraikinari irisgarritasuna emateko zergatik den beharrezkoa ondasun eta eskubide partikularrak okupatzea edo desjabetzea, eta frogatu behar da, beste proposamen batzuk aukeratuz gero baina proportzionaltasun handiago dagoela desjabetutakoaren eskubideak sakrifikatzearen eta irisgarritasuna hobetzearen artean.</li><li>- Proposatutako desjabetzearen eraginpean dauden ondasun eta eskubide horietako bakoitzaren eta ororen balio ekonomikoa, eta horien titulartasuna dutenei eskaini zaiena.</li><li>- Desjabetzearen onuradunek desjabetutako ondasunen eta eskubideen balio ekonomikoa</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>- Copia de los acuerdos adoptados por la Comunidad de propietarios vinculados con la expropiación.</li><li>- Identificación de las personas beneficiarias, que podrán ser o la Comunidad propietaria o quienes tengan una mayoría suficiente para ejecutar las obras, a tenor de la legislación vigente sobre propiedad horizontal: Podrán ser igualmente beneficiarias de la expropiación las personas con discapacidad, en los términos de la Ley 15/95 de 30 de mayo, una vez que por sentencia firme se les haya reconocido el derecho a ejecutar obras de adecuación del inmueble.</li><li>- Relación de los bienes o derechos que necesariamente serán afectados para dotar de accesibilidad al inmueble de que se trate, identificados registralmente, con indicación de los efectos que dicha expropiación pudiera tener sobre la actividad o función a que se destinan dichos bienes.</li><li>- Identificación de los titulares de los mismos.</li><li>- Justificación detallada de los motivos y finalidad de la expropiación fundamentando las razones por las que la ocupación o afección a bienes y derechos particulares son necesarias para dotar de accesibilidad al inmueble de que se trate así como la proporcionalidad entre el sacrificio del derecho del expropiado y el grado de mejora de la accesibilidad frente a otras soluciones.</li><li>- El valor económico de todos y cada uno de los bienes y derechos afectados por la expropiación propuesta, y ofrecidos a quienes ostenten la titularidad de los mismos.</li><li>- El compromiso de las personas beneficiarias de la expropiación de abonar el valor económico de los bienes</li></ul> |
|--|---|



Usurbilgo Udala

ordaintzeko konpromisoa.

#### 34. artikulua. Tramitazioa.

1. Administrazioari desjabetze espedienteari ekiteko eskaera eginda, egitekotan dauden jarduerak eta obrek eragindako ondasunen eta eskubideen titularrentzat entzunaldiko tramitea irekiko da 15 egunez. Tramite horren testuinguruan, proiektuan azaltzen direnez aparteko iradokizunak edo/eta proposamenak ere aurkeztu daitezke.

2. Desjabetze eskaera aztertzea dagokien udal zerbitzuen aztertuko dute. Desjabetzeko eskaeraren azterketa egiterakoan, Ordenantza honetan galdatutako betekizunak edo betebeharrak betetzen diren ere aztertuko da, baita aurkeztutako alegazioak, iradokizunak eta alternatibak edo aukerak ere. Azterketa hori dagokion txostenean islatuko da eta txosten horretan oinarrituta Udalak honako erabaki hauek har ditzake:

- a) Desjabetzearen bitartez esku hartzeko eskabidea ezestea, modu arrazoituan, horretarako beharrezko diren baldintzak ez direlako justifikatzen edo betetzen.
- b) Eskabidearen tramitazioa, eta indarrean dagoen legedian finkatutako irizpideei jarraikiz desjabetze proiektua idazteari ekitea.

3. Bai desjabetze proiektua egiteari dagokionez, bai hori tramitatzeari dagokionez, nahitaezko desjabetzearen alorrean indarrean dagoen legedian xedatutakoa aintzat hartuko da; bereziki, hasiera emateari, tramitazioari eta prezio zuzena zehazteari dagokionez.

Desjabetzeko espedientea tramitaztea onartuz gero, Udalak zehaztu egingo du, kasuan kasu, zeini atxikituko zaion jarduketara: Tasazio bateratuaren prozedurari edo banakako tasazioarenari.

y derechos afectados por la misma.

#### Artículo 34. Tramitación.

1. Solicitada a la administración la incoación del expediente de expropiación, se abrirá trámite de audiencia por un plazo de 15 días, con los titulares de los bienes y derechos afectados por las obras y actuaciones proyectadas. En el contexto de este trámite podrán presentarse sugerencias y/o propuestas alternativas a las expuestas en el proyecto.

2. La solicitud de expropiación será analizada por los correspondientes servicios municipales. El análisis de la solicitud de expropiación se extenderá al cumplimiento de los requisitos exigidos en esta ordenanza, así como a las alegaciones, sugerencias y alternativas presentadas. El análisis se reflejará en el correspondiente informe y con base en el mismo el Ayuntamiento optará por:

- a) La desestimación, de forma motivada, de la solicitud de intervención mediante expropiación al no cumplirse o justificarse las condiciones necesarias para ello.
- b) La tramitación de la solicitud, procediendo a iniciar el expediente de expropiación de acuerdo con los trámites y criterios establecidos en la legislación vigente.

3. Tanto a los efectos del contenido del documento de expropiación como a los de su tramitación, se estará a lo dispuesto en la legislación vigente en materia de expropiación forzosa y, en particular, en relación con su incoación, tramitación y determinación del justiprecio.

En el supuesto de que se acuerde la tramitación del expediente de expropiación, el Ayuntamiento determinará en cada caso la sujeción de la actuación bien al procedimiento de tasación conjunta, bien al de tasación individual.



Usurbilgo Udala



4. Desjabetzearen ondorio diren kostu guztiak desjabetzea eskatu duenak ordaindu beharko ditu. Kontzeptu horrek bere baitan hartzen ditu, besteak beste, desjabetze jarduerak nahiz onuradunak horretan atzera egiteak desjabetuari sor diezazkiokeen galerengatikoko kalte-ordainak oro.

5. Kostu horiek ordainduko direla bermatze aldera, baita desjabetzearen xede ona eta irisgarritasunaren hobekuntza ere, egokitzat jotzen duen abala edo bermea jartzeko galdatu ahal izango dio udalak onuradunari. Oro har, horrelakorik jartzea komenigarritzat jotzen den guztietan, desjabetzeak eragiten dien ondasunen balio ekonomikoaren ehuneko 20a izango da dena delako abalaren zenbatekoa, nahiz eta behar bezala justifikatutako egoera jakinetan diru-kopuru hori handiagoa edo txikiagoa ere izan ahalko den.

#### XEDAPEN IRAUN KORRA

Ordenantza hau indarrean jarri aurretik tramitatzen hasitako eskabideek honetan jasotakoei heldu ahal izango diete, aldeko zaizkien guztietan.

#### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 15 eguneko epean jarriko da indarrean, behin betiko onespina eman ondoren.

4. La totalidad de los costes derivados de la expropiación serán abonados por quien solicite la misma. En este concepto quedan incluidos, entre otros, las indemnizaciones de los perjuicios que la actuación expropiatoria y el desistimiento de la misma por parte de la persona beneficiaria puedan ocasionar a quien sea objeto de expropiación.

5. A efectos de garantizar el abono de dichos costes y el buen fin de la expropiación y la mejora de la accesibilidad, el Ayuntamiento exigirá a la persona beneficiaria el depósito del aval o fianza que, con ese fin, estime adecuado. Con carácter general, y sin perjuicio de que en determinados supuestos debidamente justificados su cuantía pueda ser superior o inferior, el importe de dicho aval se corresponderá con el 20 por ciento del coste del valor económico de los bienes que resultan afectados por la expropiación.

#### DISPOSICION TRANSITORIA

Las solicitudes que ya estuvieran en tramitación antes de la entrada en vigor de la presente ordenanza, podrán acogerse a esta en todo aquello que les resultara favorable.

#### DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días siguientes de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, una vez aprobada definitivamente.

Hirigintza Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria, Luis Mari Ormaetxea eta Ricardo Cresporen aldeko botoekin, aho batez, Plenoari proposatutako erizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du:

### E R A B A K I A

**LEHENDABIZI:** Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaren hasierako onespinari aurkeztutako alegazioak ondoko eran erantzutea:

- 01. alegazioa



Usurbilgo Udala



**Sarrera data-zenbakia: 2013-11-27 / 4025**

Interesatua: Montse Padrones Ayuso  
Alegazioa AINTZAT HARTZEA.

- 02. alegazioa

**Sarrera data-zenbakia: 2013-12-11 / 4299**

Interesatua: Ainhoa Azpiroz eta Zalao Arnaiz  
Alegazioa AINTZAT HARTZEA.

**BIGARRENA:** Irigarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza behin betikoz onartzea.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ematea, ordenantza bere osotasunean argitaratuz.

**LAUGARRENA:** Erabaki hau alegazioak tartekatu dituztenei jakinaraztea.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

**Aldeko botoak:** Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Andoni Atxega San Sebastian eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, diktamena aho batez onartua izan da.

**5.- USURBILGO UDALA ETA AGINAGAKO ASISKO SAN FRANTZISKO PARROKIAREN ARTEKO ERRENTAMENDU KONTRATUA.**

Alkateak Zerbitzuak batzordeko diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Azaldu du Aginako Parrokiaren jabetzako eraikin batzuetan aspalditik daudela Udalak kudeatzen dituen hainbat zerbitzu (eskola txikia, jubilatuen egoitza, etab.). Lokal hauen errentamendu edo kontratuak aspaldikoak zirela eta bi edo hiru zatitan banatuta zeudela gaineratu du.

Bestalde, ikusirik elizaren aldetik hitzarmena sinatu zuen pertsonak ez zuela nahikoa eskumen juridikorik hori egiteko Gotzaitegiak Udalari beste hitzarmen batzuk sinatzea eskatu omen zion. Udalak bere aldetik ere ikusirik hainbat gauza eguneratu gabe zeudela, eta dena txukuntze aldera, bi aldeek beste hitzarmen bat adostu zutela adierazi du.

Hitzarmen berri honetan hogeit hamar urteko epealdia aurreikusten dela adierazi du, eta alokatzen dena da beheko eta lehenengo solairu osoak eta bigarrenengo solairua baina kenduta elizak daukan sarrerako pasabidea, sakristia, bulegoak eta beraien



Usurbilgo Udala



eskumenean dauden lokalak. Alokairuaren prezioa 1.250 eurokoa dela esan du. Bestalde, hitzarmenean bertan aipatzen direla esan du alde bakoitzak bete beharrekoak.

Amaitzeko, alkateak adierazi du orain sinatuko duten hitzarmen berri honekin aurretik zeuden guztiak indarrrik gabe geratzen direla.

Batzarkideek, Zerbitzuak batzorde informatzailearen diktamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Usurbilgo Udalak Aginako Asisko San Frantzisko Parrokiak kudeatuta, elizarenak diren hainbat lokal dauzka errentan hartuta aspaldidanik. Kontratu haiek (1.990ekoa, 1.992koa, 1998koa eta 2008koa) lokal ezberdinak hartzen zituzten errentan. 2008an sinatu zen kontratua Aginagako parrokiaren izen eta ordezkartzan sinatu zuenak, Antonio Pikabea Sarasola jauna, hau sinatzeko gaitasun juridiko nahikorik ez zuela eta, elizak erreklamazioa aurkeztu zuen udalean.

Udalak, arrazoi hau kontuan izanda, eta gainontzeko errentamendu kontratuak oso aspaldikoak zirela ikusita (tartean egun erabiltzen ez den lokal baten alokairua), alokairu kontratu guzti hauek errebisatu eta lokal guztien alokairua batzen zuen kontratu bat adostu eta sinatzea proposatu zion elizari, eta honek onartu egin zuen.

Kontratua 20 urterako sinatzea proposatzen denez, azaroaren 3ko Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legea Orokorraren 124. artikulua eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 2. xedapen gehigarrian zehaztutakoa kontuan izanda, erabaki honetarako organo eskuduna Udaltza da.

Elizarekin hainbat elkarrizketa izan ondoren, errentamendu kontratuak honako idazkera izango duela adostu da:

“

*Usurbilen 2014ko otsailaren 1ean*

#### **BILDUTA**

**ALDE BATETIK**, eta errentatzaile gisa, **IBON ALBERDI URRESTARAZU**, Aginako Asisko San Frantzisko Parrokiako parrokoa (Usurbil, 20170) Usurbilgo Kale Nagusia 25ean helbideratua eta 44.145.664-Q NA zenbakia duena.

Aginako Asisko San Frantzisko parrokiaren izen eta ordezkartzan, IFZ Q-2000345-E.

**BESTALDE**, errentari gisa, **MERTXE AIZPURUA ARZALLUS**, Usurbilgo Alkatea, Usurbilgo (20170) Joxe Martin Sagardia plaza z.g.-an helbideratua eta NA 44.134.506.-J zenbakia duena.

**USURBILGO UDALAREN** izen eta ordezkartzan, Alkatea-Lehendakari gisa Udaltzak 2011ko ekainaren 11an hartutako erabakiaren baitan.

Elkarri dokumentu hau sinatzeko nahikoa gaitasun onartuz.



Usurbilgo Udala

## AURREKARIAK

### I. Asisko San Frantzisko Aginako parrokia ondoko higiezin jabea dela:

1."Parcela en Término de Usurbil, Barrio de Aginaga, que tiene una extensión superficial de seiscientos ochenta y cuatro metros cuadrados, y linda: por el Norte, propiedad de D. Jose Manuel Mayo; por el Sur, resto de que se segregó, camino en medio; por Este, parcela destinada a la Iglesia; y por el Oeste, propiedad del Ayuntamiento, antiguo templo parroquial y resto de que se segregó.

•TITULO: El de segregación de otra de su propiedad, verificada mediante escritura otorgada el ocho de abril del año en curso, ante el Notario de San Sebastian Miguel de Castells y Adriensens, que se inscribió en el Registro de la Propiedad de dicha Ciudad en el folio 30 del tomo 1.274 del archivo, libro 33 de Usurbil, finca número 1.559, inscripción.

CARGAS.-No las tiene la finca descrita, según asegura el señor compareciente. Sobre el solar descrito, la Iglesia Católica en su Parroquia de Aguinaga, de la Villa de Usurbil, construye la siguiente edificación:

**Edificio de tres plantas** destinado a Centro de Enseñanza Primaria, sito en el Término de Usurbil, barrio de Aguinaga, distribuido en aulas, salón de actos, biblioteca, y los correspondientes servicios generales. Ocupa una extensión superficial de seiscientos ochenta y cuatro metros cuadrados, y linda: por el Norte, propiedad de D. Jose Manuel Mayo; por el Sur, resto de finca del que se segregó el solar de la que se describe, camino en medio; por Este, parcela destinada a Iglesia y por Oeste, propiedad del Ayuntamiento, Antiguo Templo parroquial y resto de la finca que se segregó el solar de la que se describe.

La construcción es a base de cimientos de hormigón en masa; estructura mixta de hierro y hormigón; forjados aligerados y muros de fábrica de ladrillo."

II.- Usurbilgo Udalak kontratu honetako aurreko atalean deskribatutako eraikinaren zati bat errentan hartzea nahi duela, etxebizitza ez den beste erabilera baterako, eta errentari gisa berau okupatzea adosten dutela, **ETXEBIZITZA EZ DEN BESTE ERABILERA BATERAKO ERRENTAMENDU KONTRATU** gisa, jarraian zehazten diren hizpaketan arabera.

## HIZPAKETAK

**LEHENENGOA.- OBJEKTUA:** Usurbilgo Udalak eta Aginako Asisko San Frantzisko parrokiak lehenengo aurrekarian zehaztutako hiru solairuko eraikinaren zati bat errentan hartzea eta ematea adosten dute, errentamendu honen objektu dena honakoa izanik:

- Behe solairu osoa
- Lehenengo solairu osoa Bigarren solairu osoa Elizatik sarrera duten, sakristia, ondoko bulegoa eta komuna izan ezik

Ondorioz, Parrokiak bere erabilerarako gordetzen ditu, eta hortaz ez dira errentamendu kontratu honen objektu, jarraian zehazten diren bigarren solairuko espazioak:

Sakristia, ondoko bulegoa eta komuna. Espazio hauetara solairu hau elizarekin lotzen duen igogailua erabilita sartu ahal izango da, eta espazio hauen erabilera parrokiaren eta parrokiak izendatzen dituen erabiltzaileentzat izango dela adosten da errentamenduaren indarraldian zehar.

Kontratu honi atxikita gelditzen da, beraren parte izanik, errentan hartzen ez diren espazioak





Usurbilgo Udala

gorriz zehazten diren planoak.

**BIGARRENA.- EPEALDIA.-** Kontratu honen iraunaldia **HOGEI URTEKOA** izango da, kontratua sinatzen denetik aurrera, eta hortaz, bere iraunaldia 2034ko urtarrilaren 31ra artekoa izango da. Data honetan errentariak higiezinak utzi eta entregatu beharko du, errentatzailearen esku utziz.

Kontratu honen amaiera automatikoa izango da eta horretarako ez da beharrezkoa izango errentatzailearen aurre jakinarazpena. Errentariak berariaz uko egiten dio amaieraren ondorioz legez egokitu dakioken edozein kalteordain jasotzeari eta espreski, aplikagarria izanez gero, Hiri Errentamenduen 1.994ko azaroaren 24ko Legearen 34. artikuluan zehaztutakoari.

**HIRUGARRENA.-PREZIOA.-** Hileko errenta **MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO ETA HIRUROGEI** zentimotan zehazten da (1.250,60), gehi une bakoitzean dagokion BEZa, egungo tipoa %21akoa izanik, eta hortaz BEZari 263,17 euro dagozkiola, orotara **1.513,23 euro**.

Ordainketa aurretiazko hileroko ordainketa bidez egingo da, hilaren bosta baino lehen jarraian zehazten den KUTXABANKeko kontu korrontean diru-sarrerara eginez: 2095/5069/01/1060812111.

**LAUGARRENA.-** Parrokiak hiru solairuko higiezinaren giltza bat izateko eskubidea du, eta baita espazio hauetatik barrena errentan hartuta ez dauden espazioetara sartzeko eskubidea ere (sakristia, alboko bulegoa, komuna eta eliza). Espazio hauetara eskaileretatik edo igogailua erabilita sartu ahal izango da.

**BOSGARRENA.-** Errentariak higiezinak jarraian zehazten diren objektu eta helburuetarako erabiltzeko betebeharra du:

-Behe solairua: Auzoko gazteen erabilerarako lokalak eta estola txikia

-Lehen solairua:

- Lehen hezkuntzako eskola (sarrera, komunak, 3 gela, bulegoa eta biltegia)
- Jubilatuen erabilerarako lokalak (taberna, sukaldea, komunak, lokala eta ile-apaindegia)

-Bigarren solairua:

- -Ludoteka
- -Informatika gela
- -Jubilatuaren erabilerarako lokalei lotutako biltegia
- -Eskulanetarako jubilatuen lokala

Ezingo da beste erabilera edota helburu edo ekintza batzuetarako erabili, salbu eta errentatzailearen berariazko eta idatzizko baimenarekin.

Kontratuaren indarraldian higiezinaren erabilerarekin lotutako obraren bat egin behar bada, parrokiaren idatzizko baimena beharko da eta errentariaren kontura izango dira. Guzti horiek eta orokorrean higiezinaren hobekuntzarako egiten den edozein, bertan geratuko da, jabe-errentatzaileak horregatik inolako ordainketarik egin beharrik gabe.

Udalaren kontura izango dira lokalen mantenu gastuak eta hauek baldintza egokietan bete beharko ditu, mantenu horren barruan kontsideratuz erabileraren ondorioz kaltetzen diren gaiak.

Bere aldetik, parrokia estrukturalako elementuen mantenuaren arduraduna izango da (estruktura,



Usurbilgo Udala

estalkia eta fatxada). Salbu daude lehioak, irekitze eta iste mekanismoak, pertsianak baleude eta beiren apurtze eta kalteak, erabileragatik kaltetuak izan ahal baitira eta beraz hauek errentariaren kargurakoak izanik.

**SEIGARRENA.-** Errentariaren konturakoak izango dira baita ere, kontratuaren indarraldian higiezinari lotuta egon daitezkeen, ur, telefono, elektrizitate eta gainontzeko horniduren kontsumoak, hauen izaera edozein izanda ere, nahiz eta hasiera batean errentatzailearen izenean egon. Azken kasu honetan errantariak errentatzaileari ordaindu beharko dizkio berak ordaindu dituenak ordainketa eskatu bezain laster. Horretaz gain, errentariaren konturakoak izango dira higiezinaren mantenurako beharrezko gastu orokorrak, komunitateko gastu arruntak eta higiezinari lotutako zerbitzu eta hornidurak.

**ZAZPIGARRENA.-** Errentatzaileak errentariari eskatu ahal izango dio kontratuaren indarraldian zehar kontribuzio, tasa, ariel, zerga eta abarren ordainketa burutua duela frogatu dezala eta orokorrean, higiezinari lotutako gastua izanik errentariak ordaindu ezean errentatzaileak ordaindu beharko lukeen edozer.

**ZORTZIGARRENA.-** Errentariak errentamenduaren objektua arretaz zaindu eta kontserbatzeko betebeharra hartzen du, erabilera eta mantenu egokirako beharrezkoak diren konponketak eginez, gozamen baldintza egokietan aurkitu dadin beti.

**BEDERATZIGARRENA.-** Errentariak kontratuaren indarraldian zehar aseguru poliza bat izan beharko du, higiezinari eta hirugarrenei sor dakizkien kalteak estaltzen dituen (bai edukitzailea bai edukia) eta bere eta erabiltzaileen egintzen ardura hartzen du, kontratuaren suntsipenaren edota egon daitezkeen kalteegatiko kalteordain posible baten ondorioetarako.

**HAMARGARRENA.-** Errentatzaileak libreki eta edozein tituluren bitartez, edozein unetan errentamenduaren objektu den lokala besterendu ahal izango du, kasu honetan 1.994ko azaroaren 24ko Hiri Errentamenduen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa aplikagarri izango delarik. Beti ere, Lege beraren 31. artikuluan xedatutako (25. artikulua harira) lehenespenezko eskuratzeko eskubidea du errentariak.

**HAMAIKAGARRENA.-** Errentariak ezingo du kontratua laga ez kontratu honen objektu den higiezina azpierreantatu, jabe-errentatzailearen berariazko baimen idatzirik gabe.

**HAMABIGARRENA.-** Behin kontratua amaituta, kausa edozein izanda ere, errentariak higiezina mantenu egoera egokian entregatu beharko du.

**HAMAIRUGARRENA.-** Kontratu honen indarraldia bukatuta, errentariak ez badu lokala uzten, errentatzailearen eskura utziz, zigor klausula gisa indarraldiaren bukaeratik igarotzen den egun bakoitzeko LAUROGEI (80,00) euroko zenbatekoa ordaindu beharko dio errentatzaileari, errentatzaileari higiezina entregatu eta honek hau jaso arteko egunetan.

**HAMALAU GARRENA.-** Kontratu hau, euskeraz eta gazteleraz idazten da. Klausula baten interpretazioan zalantzarik balego, gaztelerazkoak izando du lehentasuna.

**HAMABOSGARRENA.-** Kontratu hau Hiri Errentamenduen 29/1994 Legean zehaztutakoaren harira ematen da, eta alderdiek adostutakoaren arabera arautuko da. Bertan zehaztuta ez dagoen guztian, aipatutako Legearen III. Tituluan zehaztutakoaren arabera, eta subsidiarioki Kode Zibilaren arabera.

**HAMASEIGARRENA.-** Kontratu honetan hitzartutako hizpaketak ez betetzea, edota Hiri Errentamenduen 29/1994 Legea edo Kode Zibila ez betetzeak errentatzaileak kontratua suntsitzea



Usurbilgo Udala

*ekarri ahal izango du.*

**HAMAZAZPIGARRENA.- Alderdiak Donostiako epaitegi eta auzitegien forura atxikitzen dira.**

*Eta adostasunaren adierazle, ale bikoitzean eta efektu bakarrean, goian zehaztutako data eta lekuan sinatzen dute.*

“

Zerbitzutako Batzordeak 2014ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, aho batez, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria, Luismari Ormaetxea eta Ricardo Cresporen aldeko botoarekin, Udalbatzari proposatutako erizpena kontutan hartuta, Udalbatza plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

LEHENENGO: Aurrez transkribatutako errentamendu kontratua sinatzea onartzea, Aginagako lokalen inguruan elizarekin aurrez sinatuta zeuden errentamendu kontratu guztiak ordeztu dituen, hauek guztiak indar eta baliorik gabe gelditzen direlarik.

BIGARREN: Alkatea ahalduntzea kontratua sinatzeko.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

**Aldeko botoak:** Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Andoni Atxega San Sebastian eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, diktamena aho batez onartua izan da.

## **6.- 2014/0005 DEKRETUA BERRESTEA: USURBILGO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZU KONTRATUA BESTE URTEBETEZ LUZATZEA.**

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Azaldu du etxez etxe laguntza zerbitzua aurrera eramateko kontratua Arreta Zerbitzuak enpresarekin 2010ean sinatu zela eta lau urterako kontratua zela, beti ere, urtez urte beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Lau urteko epe hori orain amaitu dela adierazi du eta Gizarte Zerbitzuetako txostenaren arabera, beste urtebetez luzatzeko proposamena egiten dela. Luzapen hori dekretuz onartu zenez, orain Udalbatzari, kontratu honetako kontratazio organoa den heinean, dekretu hori berrestea eskatzen zaio.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzorde informatzailearen diktamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:



Usurbilgo Udala

“Dekretuak honela dio:

“*MERTXE AIZPURUA ARZALLUS, USURBILGO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIAK, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuaren 2. Xedapen Gehigarriaren 1. puntuak eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.k) artikulua xedatutakoaren arabera, honako hau*

#### **IKUSIRIK**

*2009ko azaroaren 24an Udaltzako Usurbilgo Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzuaren behin behineko esleipena ARRETA ZERBITZUAK S.L. enpresaren alde egin zuela.*

*Kontratua 2010eko urtarrilaren 2an sinatu zela, hirugarren klausularen arabera lau urterako, beti ere urtez urte beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Hori horrela, kontratuaren iraupena 2014ko urtarrilaren 1ean amaitu dela.*

*Gizarte Zerbitzuetako teknikari den Nerea Altxu andreak egindako txostenean kontratua beste urte betez luzatzeko proposamena egin duela.*

*Hau guztia horrela,*

#### **ERABAKI DUT**

**LEHENENGO:** *Usurbilgo Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzu kontratua beste urte betez luzatzea, 2014ko urtarrilaren 2tik 2015eko urtarrilaren 1a arte.*

**BIGARRENA:** *Udaltzari, kontratu honetako kontratazio organo den heinean, dekretu hau berresteko eskatzea.*

**HIRUGARRENA:** *Esleipendunari dei egitea kontratuaren luzapen-agiria sinatzera Udalera etor dadin.*

**LAUGARRENA:** *Interesatuari eta kontuhartzaitzari erabaki hau jakinaraztea.*

*Erabaki hauek finakoak dira eta amaiera jarri diote administrazio-bideari.*

#### **ERREKURTSOAK**

- *Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsua aurkez dezake azaroaren 26ko 30/1.992 eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeen arabera Alkatetzaren aurrean. Interesatuak hilabeteko epea dauka horretarako:erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.*
- *Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu ordez, edo berraztertzeko errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Administrazioarekiko Auzialdiko Gipuzkoako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak SEI HILABETEKO epea izango du, errekurtsua tartekatu zuen datatik kontatzen hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko.”*



Usurbilgo Udala



**Agindu eta izenpetzen duena alkate andrea, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua. Usurbilen,”**

Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua Arzallus, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Josune Urquia Carrera-ren aldeko bozkekin, aho batez, Udalbatza Plenoari proposatutako erizpena kontutan hartuta, honek honako erabakia hartu du aho batez:

## **E R A B A K I A**

**LEHENENGOA:** Alkateak 2014ko urtarrilaren 7an emandako 2014/0005 Dekretua berrestea.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri Arreta Zerbitzuak S.L.-ri eta kontuhartzaitzari ematea.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

**Aldeko botoak:** Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Iurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Andoni Atxega San Sebastian eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, diktamena aho batez onartua izan da.

## **7.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.**

Galderen tartean, Luismari Ormaetxeak adierazi du duela egun batzuk alkateak jakinarazi ziela aspaldidanik espero zuten egoera bati aurre egin behar zitzaiola, hau da, Espainiako bandera jarri beharko zela udaletxean. Honen aurrean adierazi du duela bederatzita hilabete inguru mozio bat onartu zenez esanez bandera espainiarra ez zela Usurbilgo herritarrena, iruditzen zaio herritarrek ere jakin behar dutela gertaera hori gertatuko dela. Oker ez badabil, gertaera hori hurrengo astelehena baino lehen gertatuko dela esan du. Hau horrela, usurbildarrek jakin dezaten eta gertaera hori gertatzen den bitartean beraien desadostasuna edo protesta adierazteko nahiarekin, galdetu du ea noiz jarriko den, zein ordutan eta zein udal langile behartua izango den hori egitera.

Alkateak adierazi du inposatutako neurri bat betetzera behartuta dagoela udal hau. Behin jakinarazten denetik bi hilabeteko epea izaten denez betetzeko, astelehenean jarriko dela esan du, hala ere, erantzun dio oraindik ez dakitela zehazki ze ordutan eta nork jarriko duen. Hala ere, usurbildarrak ohartaraziko dituztela esan du, komunikazio bat egitea aurreikusten baitute. Bestalde, pleno honen ondoren gainontzeko talde politikoekin gai honen inguruan hitzegiteko asmoa bazutela adierazi du.



Usurbilgo Udala



Josu Portuk galdetu dio Luismari Ormaetxeari ea egin duen planteamenduarekin protesta konkreturen bat egitea proposatzen duen.

Luismari Ormaetxeak erantzun dio ikusirik alkatesak proposamen bat egingo diela minutu gutxi barru, proposamen horren zain geratuko dela.

### **7.1.- EHBILDUK ETA USURBILGO HAMAİKABAT-EK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EMAKUMEEN AUTONOMIAREN ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN DEFENTSAN.**

Enara Arbizuk mozioa irakurri du.

Batzarkideek, EHBilduk eta Usurbilgo Hamaikabat-ek aurkeztutako mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Aurreko abenduaren 20an, Estatu espainolean PP buru den Ministroen Kontseiluak “Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako” Lege Organikoaren aurreproiektua onartu zuen, egungo osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldia eteteko 2/2010 LO aldatuz. Aldaketa horrek emakumeen autonomiaren kontra egiten du bete-betean edo, bestela esanda, oinarrizko giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboaren aurka (\*). Hamarkadatarako borrokaren bidez lortutako eskubidea zartada batez ezabatu nahi dute: emakumeek beraien bizitza sexual eta erreproduktiboaren inguruan erabakitze eskubidea izatea, alegia, inolako tutelarik eta jarraipenik gabe. Egin asmo duten kontrarreformak emakumeen autonomia urratu, emakumeen heldutasuna, erabakitze gaitasuna eta ardura ukatu eta infantilizatu egiten ditu, abortatu ahal izateko beste batzuekiko menpekotasuna ezarri. Hala, emakumeon gorputzak Estatuak eta medikuntzak interbenitutako erreproduktzio hutsera murriztu ditu. Finean, lege egitasmo honek emakumeak gutxiesten ditu; haien borondatea eta haien bizitzarekiko kontrola haien eskuetatik kendu eta Estatuaren tutelapean ezarri.

Gaur egun, haurdunaldia bilatu gabe (nahi izan gabe) haurdun geratu izana izan ohi da haurdunaldia eteteko arrazoi nagusia. Bada, kontrarreformak emakume guzti horiek ama izatera behartu nahi ditu, emakume guzti horien bizitza baldintzatu. Eta, era berean, haurdunaldia bilatua izan arren, malformazioak edo gaixotasunak identifikatutako kasuetan erabakitze aukera ukatu nahi dute, edozein modutan haurdunaldiarekin jarraitzea behartuz. Bortxaketarik legokeen kasuetan soilik baimendu nahi dute abortua baina horretarako salaketaren baldintza jarri, jakin badakitenean bortxaketa asko salatu gabe geratzen direla.

Noren izenean egin nahi dute basakeria hau? Noren hobe beharrez? Zalantzarik ez dago emakumeen bizitzak behintzat ez dituela bereziki kezkatzen. Izan ere, indarkeria matxistaren itzalpean erailtzen eta erasotzen dituzten emakumeen bizitzak ez dira Gobernu espainiarraren lehentasuna. Ez da neurri edo baliabide berezirik ezartzen etengabeko eraso eta erailketa hauekin bukatzeko. Era berean, emakumeen bizi-



Usurbilgo Udala



kalitatea okerrera doa, zerbitzu publikoak deuseztearekin batera emakumeen bizkar geratzen ari baitira gero eta zaintza-lan gehiago. Esaterako, PPren Espainiako gobernua pertsona dependienteentzako laguntzak deusezten ari da, izan helduak, adin txikikoak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen bideratuak. Estatuak bere zereginetatik ezabatzen dituen zaintza-lanak familien gain geratzen ari dira eta, zehazki, familiako emakumeen gain.

Esanguratsua da, baita ere, kontrarreformarekin tematzen diren bitartean, prebentzioa lantzeari uko egiten diotela, haur eta gazteen hezkuntza afektibo-sexuala garatzeko baliabideak gero eta urriagoak baitira.

Edozein modutan, gauza jakina da (eta Munduko Osasunaren Erakundeak ere hala onartzen du) lege murriztaileek ez dutela abortu-kopurua gutxituko. Haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak klandestinitatera edo atzerrira joatea behartuko ditu. Baliabide ekonomiko gutxi dituzten emakumeek klandestinitatera joko dute, emakume izateagatik jasotako bazterketari klase edo egoera sozio-ekonomikoarena batuz. Bestalde, kontrarreforman ezarri asmo diren abortatzeko baldintza horiek ibilbide eta tramite korapilatsuak ezartzen dituzte, haurdunaldia eteteko unea atzeratuz eta emakumeon bizitzen gaineko arriskuak handituz.

Beraz, PPren gobernuak, jaio ez denaren eskubideak defendatzearen aitzakian, emakumeen eskubideak zapaldu nahi ditu, emakumeek bizitzea merezi duen bizitzak izateak ezer gutxi kezkatuta.

Emakumeen autonomiaren, bizitzaren eta gorputzaren aurkako eraso honen aurrean, Udal honek:

1. PPK aurkeztutako "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" legearen aurreproiektua gaitzesten du, atzerakoia delako eta emakumeen eskubideak urratzen dituelako.
2. Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko konpromisoa berresten du. Haurdunaldia eteteko erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.
3. Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari eskatzen dio emakumeek haien gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu ahal izateko lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala berma dezala.
4. Udal honek, Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonal sanitarioaren kontzientzia objektua arautuz eta aipatutako zentro publikoetan emakumeek Haurdunaldiaren Borondatezko Eteterako duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren talde profesionalak daudela bermatuz.
5. Udal honek, martxoaren 3ko 2/2010 legearen baitan egiten den edozein aldaketa, emakumeentzat oinarritzkoak eta berezkoak diren eskubideak zabaltzera bideratu



Usurbilgo Udala



dadila eskatzen du, emakumeek ama izan ala ez erabakitzeke ahalmena izan dezaten.

6. Erreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.
7. Herritarrei dei egiten diegu emakumeen autonomiaren alde eta, zehazki, oinarritzko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako gobernuaren kontrarreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten.
8. Honako pleno akordioa Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Gallardoni eta Madrilgo kongresuko eta senatuko talde parlamentari guztiei helaraziko zaie.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

**Aldeko botoak:** Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneira Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luisuari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Andoni Atxega San Sebastian eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

## **7.2.- AUZOLAN ELKARTEAK AURKEZTUTAKO EGITASMOA: ERRESILIENTZIAREN ETA GARAPENAREN ALDEKO USURBILGO HERRI-HITZARMENA.**

Alkateak azaldu du mozio hau 6 aldiz aurkeztu dela udaletxe honetan, eta gaineratu du bere garaian talde guztiei banatu zitzaizela norbaitek aukera ikusten bazuen plenoan aurkezteko. Gobernu taldearen ustez oso orokorra zen eta nahiko zailtasunak ikusten zituzten gai honi heltzeko udaletxetik. Gaineratu du defendatzeko asmorik ez zutenez, ez zutela egokia ikusten plenora ekartzea, ikusirik gainera beste inork ez bazuen aurkezten babes nahikorik jasoko ez zuen egitasmoa izango zela. Dena den, 6. aldia zen aurkezten zutela eta mozioa aurkeztu duten Auzolan elkartekoekin hitz egin ondoren, eta ikusirik beraien planteamendua zela plenora ekartzea, azkenean plenora ekartzea erabaki dutela esan du.

Mozioa oso luzea denez, alkateak azken hiru puntuak irakurri ditu.

Ondoren, alkateak hitza eman die Auzolan elkartekoei.

Auzolan elkarteko Gabriel Valinek hitza hartu du eta adierazi du testu bat irakurriko duela gaztelaniaz eta barkamena eskatzen dio plenoari euskaraz ezin duelako. Hala





Usurbilgo Udala



ere, ondoren plenoak galderaren bat egin nahi badu bere lagunak euskaraz erantzun dezakeela esan du. Hau da irakurri duen testua:

“Auzolan solicita al Pleno del Ayuntamiento de Usurbil que:

1.- Apruebe **impulsar** un Proceso de Reflexión colectiva en el que puedan participar, además de los partidos políticos, los colectivos sociales, y personas interesadas. El objetivo del citado proceso de reflexión sería el de elaborar una Estrategia que pudiera hacer frente a la actual crisis que estamos padeciendo en Usurbil.

Dicho proceso sería algo semejante al proceso que se dio en Usurbil hace unos meses con el tema de Educación. (No tendría que ser necesario la contratación de una Asistencia Técnica como lo fue en el proceso de Educación).

En la moción que hemos presentado, Auzolan aporta una propuesta para dicha Estrategia. Presentamos esta propuesta :

- a) Con el ánimo de asumir la responsabilidad que conlleva presentar esta Moción al Pleno del Ayuntamiento
- b) Con el propósito de que sirva para debatirla en el citado proceso de reflexión.

La justificación de la Moción presentada se fundamenta en la actual crisis económica que venimos padeciendo desde hace varios años, y que ya está generando graves consecuencias en Usurbil

Una crisis, que desde Auzolan caracterizamos como estructural, y sistémica, y en consecuencia nos coloca ante el reto colectivo de impulsar un Nuevo Modelo de Desarrollo Económico.

Consideramos que la actual intervención política que se viene desarrollando desde el Ayuntamiento para abordar ésta cuestión (Proyecto de Agencia de Desarrollo Comarcal, y Programas de Bienestar Social,...) debería ser complementada por las siguientes razones:

1.- El proyecto de la Agencia de Desarrollo Comarcal tiene las siguientes limitaciones:

- a) Alimenta la fantasía, de que para salir de la actual crisis, se puede realizar desde el actual modelo de desarrollo capitalista, aunque lo disfracemos en el ámbito local, como Desarrollo Endógeno. **Para salir de un agujero es necesario dejar de cavar en él.**
- b) Además, el modelo de desarrollo capitalista no es un modelo propio. Euskal Herria ya desarrolló un modelo de desarrollo, que se nutría de un **MODELO CULTURAL PROPIO**, que se conoce como **Desarrollo Comunitario**, y que lógicamente debemos actualizar en la actual situación de **CAMBIO DE EPOCA** que ya vivimos en el siglo XXI.
- c) Una Agencia de Desarrollo Local-Comarcal tiene su razón de ser en la dinamización económica en el territorio en donde actúa, y el objetivo estratégico de la misma es la creación de empleo.



Usurbilgo Udala

Pero la apuesta por una Agencia de Desarrollo debería evaluar los resultados logrados hasta la fecha. La valoración de los citados resultados nos lleva a la conclusión de que tiene unas potencialidades para la creación de empleo muy limitadas, y sería necesario, y honesto reconocer dichas limitaciones.

Según datos que suministra en sus Memorias, Garapen (Asociación de las Agencias de Desarrollo Local de la Comunidad Autónoma Vasca) el número de empresas creadas por la labor de las 32 Agencias de Desarrollo Local de la CAPV, en los últimos 5 años se cifra en la cantidad de 5.479 empresas, con un total de 10.166 empleos.

Es decir, la media de creación de empresas por cada una de las 32 Agencias de desarrollo es de 171 en los últimos 5 años, es decir, 34 empresas por año.

Sí realizamos el cálculo en relación al empleo los datos son los siguientes:

Cada una de las 32 Agencias de Desarrollo, han contribuido en los últimos 5 años en la creación de 317 empleos, es decir, 63 empleos cada año.

En el último informe de Garapen del año 2012, los datos son los siguientes:

El número de empresas creadas entre las 32 Agencias de Desarrollo Local se cifra en 1.104. Es decir, una media de 34 empresas. Se estima que cada empresa contrata a 2 personas de media, es decir, 68 personas en el año 2012 por cada Agencia de Desarrollo.

Eso sí la inversión que ha conllevado la creación de estas 1104 empresas ha sido más de 25 millones de euros, es decir, 22.644€ por empresa, de la que luego viven 2 personas de media.

Desde Auzolan, pensamos que son datos muy contundentes como para llegar a la conclusión que la apuesta por una Agencia de Desarrollo Local en Usurbil debe ser analizada en profundidad. Sobre todo cuando estamos en un momento donde los recursos públicos deben ser administrados desde criterios de eficacia y eficiencia.

En nuestra opinión, la Agencia de Desarrollo no debería ser la única apuesta, sino que debería ser **COMPLEMENTADA POR OTRO TIPO DE ESTRATEGIA.**

2. Por otra parte, la Política de Bienestar Social que es necesaria utilizar para ayudar a las personas que se encuentran con las consecuencias de quedarse en el desempleo, debería ser considerada una medida paliativa, y defensiva para hacer frente al problema, ya que está condicionada por la capacidad recaudatoria del Ayuntamiento.

La evolución de la crisis nos debería llevar a la conclusión que cada año el Ayuntamiento va a disponer de un menor nivel de recursos económicos, y también es bastante lógico pensar que el número de personas que se van a encontrar en el desempleo en Usurbil, va a ser mayor. (Las noticias que se van conociendo sobre algunas empresas de nuestro municipio no son esperanzadoras).

Por último, desde Auzolan queremos exponer nuestro malestar por el proceso que ha seguido la Moción que hoy se debate en el Pleno. Esta Moción se presentó por



Usurbilgo Udala



primera vez el 14 de Mayo del 2012, y hasta el día de hoy la hemos tenido que presentar por el Registro Municipal en 5 ocasiones más.

Que la Moción de un organismo popular haya tenido que esperar casi 2 años, son hechos que hablan por sí solos, y alguien debería realizar una reflexión crítica, ya que se pone en evidencia las prácticas patológicas que se dan en el ejercicio de gobierno de lo público en Usurbil, confirmando la creencia de que la actual crisis es sistémica, y también ha llegado al ámbito Institucional vigente.

Por ello, desde Auzolan, de la misma forma que proponemos impulsar un Modelo de Desarrollo Propio, los hechos ponen en evidencia la necesidad de recuperar una Institución Propia para la toma de decisiones públicas en el ámbito local, mucho más democrática que la actual.

En la propuesta que presenta Auzolan, se propone la constitución de un Batzarre en Usurbil que asuma las competencias necesarias para que se convierta en el máximo órgano de decisión pública y democrática municipal. Y tomamos como referencia para esta propuesta al municipio de Otxandio. *Herritarren Kontzeilua*.

No es casualidad, que en el último año 2013, se hayan publicado en Euskal Herria diversos libros sobre el Batzarre. Desde Auzolan, entregamos al Pleno del Ayuntamiento de Usurbil, un ejemplar del libro "Batzarrak, jatorriko antolaketa" del que es autor Patxi Azparren, y del libro "Batzarra Gure Gobernua" elaborado por Pablo Sastre. Estos libros nos gustaría que pudieran estar disponibles para cualquier persona en la Liburutegi municipal.

También queremos mencionar el libro La Vecindades Vitorianas. Una experiencia de Comunidad Vecinal editado por Egin-Ayllu.

Por todas las razones aquí expuestas, solicitamos al Pleno del Ayuntamiento de Usurbil que decida apoyar la Moción presentada por Auzolan.

Debe de quedar claro que hoy no se aprueba la propuesta de Estrategia de Auzolan, sino lo que se solicita al Pleno es que apruebe impulsar un Proceso de Reflexión colectiva en el que puedan participar, además de los partidos políticos, y colectivos sociales, las personas interesadas. Desde nuestro punto de vista, en dicho proceso nos podríamos encontrar con que además de la propuesta del Ayuntamiento, y la que presenta Auzolan, pudiera presentarse alguna otra, y , nos podríamos encontrar con que la agradable situación, de que se pudiera aprobar más de una propuesta por ser consideradas como complementarias.

En resumen, solicitamos al Pleno que apruebe impulsar dicho Proceso de participación popular, en donde se puedan tratar las diversas propuestas para hacer frente a la crisis y que las personas que participen en el proceso puedan tomar parte en la decisión."



Usurbilgo Udala



Alkateak eskerrak eman dizkio eta esan du gauza asko azaldu dituela, baina bera mozio bezala aurkeztu den testura joango dela, hasieran esan baitu zergatik luzatu den eta argudioak ere mahai gainean jarri ditu.

Alkateak adierazi du udaletxe honek krisiaren eta enpleguaren aurrean eman behar duen erantzuna garrantzizkoa dela, eta zehaztu du erantzun bat ematen ari dela eskualdeko plangintza batetik abiatuta. Plangintza horretan sei udaletxe abian jarri direla norabide berean esan du (Astigarraga, Lasarte, Urnieta, Hernani, Andoain eta Usurbil). Udaletxe horiek lankidetzan ari direla esan du, estrategia zabal eta garrantzitsua izango dela uste dute eta datozen hilabete hauetan proiektu bat abian jarriko dutela adierazi du.

Aipatutako lankidetzara horren baitan eta estrategia horren barnean ere parte-hartzeak eta ekonomia sozialak berebiziko indarra izango dutela azpimarratu du. Zehaztu du beraien estrategia definitua eta landuta dagoela eremu horretan eta ez duela zertan kontrajarria izan behar mozioan markatzen diren hainbat punturekin, zeren filosofikoki hainbat gauzekin bat etorri daitezkeela dio. Bestalde, esan du egia dela baita ere auzolanaren ideia ez bakarrik konpartitu baizik eta sustatu eta lagundu ere egin dutela. Adibide bezala Aginagan sortu den egitasmoa aipatu du, aginarren ekimenez aurrera eramanez den auzolaneko lan hori, udalaren eta herritarren artekoa.

Eskualdeko plangintzara bueltatuz, aipatu du beraien ustez eraginkorra izango dela, ildo hori dela erakunde honek bultzatu behar duena, beste udaletxeekin elkarlanean, eta baita ere eragile sozialekin eta herritarrekin. Erantsi du prozesua zabaltzen denean Auzolan elkartearen aportazioak ere ongietorriak izango direla eta inori ez dizkiela atekatu.

Jarraian, Alaitz Aizpuruak hitza hartu du eta esan du Garapen Agentziari buruz eman dituen datuak esanguratsuak eta garrantzitsuak direla, eta udal gobernuak ere errealitate hori ikusi duela azpimarratu du.

Jarraitu du esanez jakinik ere enplegu planetatik abiatu zela udalen arteko lankidetzaz hitzarmen hori, momentu batetara iritsi ziren non tokiko garapenerako instrumentu bat beharrezkoa ikusten zuten, Garapen Agentzia deitu edo beste zerbait deitu. Zalantzan zergatik jartzen duenari buruz esan du, ikusten zutela Gipuzkoa mailan eskualde bakarra zirela Garapen Agentziarik ez zutena, eta bai Gipuzkoan zein Bizkaian edo inguruan badaudela eredu desberdinak. Ez dakiela dio nolako Garapen Agentzia izango den baina argi dutela dio Gabriel Valinek aipatu dituen puntu asko kontutan izan beharko dituela.

Bestalde, garai hauetan oinarritzak eta beharrezkoak ikusten dutela dio gizartearekin batera plan estrategikoa bat adostu edo landu beharko dutela. Guzti horren oinarria parte-hartzea izango dela esan du, baina baita ere ikusten dute eta garrantzitsua dela dio tokiko garapena ez dela udalerrian bakarrik garatu beharreko gai bat, baizik eta eskualdeak berebiziko garrantzia hartzen duela eta guzti hori artikulatu beharko dela.



Usurbilgo Udala



Proiektu hau oraindik bulegoetan dagoela esan du, hurrengo astean hautetsiei ere lehenengo aldiz aurkeztuko zaiela eta hortik abiatuta elkarte bat sortzeko asmoa dagoela adierazi du. Helburua dela dio, eta horretan bat egingo dutela, energia, elikadura, hezkuntza, kultura, etab. lantzea eta eztabaidatzea eragile, politiko eta herritarrekin, eta plan estrategiko bat diseinatzea. Zoritxarrez eskualde bakarra izan bagara tokiko garapen agentziarik ez daukana, orain helburua dela dio aztertzea nolako garapen agentzia nahi dugun eta denen artean definitzea. Beraz, nahiz eta bidea berdina ez izan helburuetan gauza askotan bat datozela esan du.

Publikotik Auzolan elkarteko beste kideak hitza hartu du eta adierazi du bera Busturialdetik datorrela, Bizkaitik, eta han badagoela garapen agentzia bat eta hango egoera ez dela hobea esan du. Auzolan elkartetik ikusten dutela dio egoera oso oso larria dela eta aukera aproposa dela aspaldidanik herri modura egin nahi diren aldaketak egiteko. Hau da, ikusten dutena da enpleguan oinarritutako ekonomia batean kontratatzen gaituen horren menpe geratzen garela beti eta kontratatzen gaituen horrek ez kontratatzea erabakitzen duen momentuan dena hankaz gora jartzen dela. Honen aurrean, Auzolan elkartetik ikusten dute beste eredu batean kokatu behar dela.

Bestalde, auzolanaren oinarria batzarra dela esan du, hau da, auzolanaren aurretik batzarra jartzen dute, batzarrean erabakiak hartzen dira, eta erabaki horiek auzolanaren bitartez gauzatzen dira.

Amaitzeko, adierazi du hau ez dela agian momentu batetik bestera erabakitzeko gauza bat eta ondo legokeela dio lanketa baterako konpromisoa behintzat aterako balitz hemendik. Gaineratu du bere ustez komunikazio arazo bat egon dela.

Jarraian, Jose Ramon Furundarenak hitza hartu du eta adierazi du hemen aurkeztu dena gehiago ikusten dutela presente eduki behar duten dokumentu bat bezala, mozio bat baino. Hori horrela, dokumentuan esaten diren gauza asko kontutan hartzen dituzte, filosofiarekin puntu askotan bat egiten dute, baina herrian era orokorrean lantzeko ez dute uste prozesu eraginkorra izango litzatekeenik. Gehiago sinisten dutela esan du gauza konkretuagoetan, dokumentua orokorregia geratzen dela deritzote. Udaletxetik gauza konkretuagoak babestu eta bultzatzen direla uste dute. Usurbilen, zorionez, badaudela talde asko esan du, kultura, kirola, gizarte gaiak, etab. lantzen dituztenak eta auzolanean lan asko egiten dutela talde horiek azpimarratu du.

Batzarkideek, Auzolan Elkarteak aurkeztutako egitasmoa aztertu dute. Egitasmo honen helburua erresilientziaren eta garapenaren aldeko Usurbilgo herri-hitzarmena gauzatzea da.

Aurkeztutako egitasmoa bozketara eraman denean batzarkide guztiak abstenitu egin dira, beraz, mozioa ez da ez onartua ez baztertua izan.

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:



Usurbilgo Udala



**Abstentzioa:** Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Andoni Atxega San Sebastian eta Ricardo Crespo Rubio.

Bozketa kontutan hartuta, mozioa ez da ez onartua izan ez eta baztertua ere.

## **8.- ANDONI ATXEGA SAN SEBASTIAN JAUNAK ZINEGOTZI KARGUA UZTEA ETA JOSUNE URKOLAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEKO IZAPIDETZA HASTEA.**

Alkateak adierazi du puntu honetan berri ematen dela, ez dela bozkatu behar.

Andoni Atxegak urtarrilaren 8an aurkeztu zuela renuntzia adierazi du eta zerrendan hurrengo zen Josune Urkolak hartuko duela zinegotzi kargua, egin beharreko izapidetzak egin ondoren.

Amaitzeko, korporazio guztiaren izenean, Andoniri eskerrak eman dizkio egindako lanarengatik, harreman pertsonal ona eduki duelako zinegotzi guztiekin eta zortetik onena opatu dio hemendik aurrerako bere bizitza pertsonalean.

Andoni Atxegak eskerrak eman dizkio eta adierazi du zinegotzi kargua uzten duela bere lanarekin ez delako bateragarria eta bere ustez gaizki egitekotan hobe da uztea.

Andoni Atxegaren kargu uztearen berri eman zaie batzarkideei:

### **“Aurrekariak**

2011ko maiatzaren 22ko Udal hauteskundeetan EAJ-PNV alderdi politikoak aurkeztutako lehenengo hautagaia izan zen hautatua Usurbilgo Udalean zinegotzi izateko.

Ondoren, 2011ko ekainaren 11n izandako Udalbatzarrean EAJ-PNVko hautagaia zen Andoni Atxega San Sebastian jaunak zinegotzi kargua hartu zuen.

Orain, 2014ko urtarrilaren 7an aurkeztutako idatzian Andoni Atxega San Sebastian jaunak zinegotzi karguari uko egin dio, arrazoi pertsonalak argudiatuta.

Era berean, EAJ-PNV alderdi politikoaren zerrendan aurkeztu zen hurrengo hautagaiak, Josune Urkola Larrarte andreak idatzia aurkeztu du non adierazten duen zinegotzi kargua onartzen duela eta kargu hau hartzeko legeak ezarritako bateraezintasun arrazoiren batean sarturik ez dagoela.

Hau guztia horrela, honako honen berri ematen dut:



Usurbilgo Udala



**LEHENA:** EAJ-PNV alderdiko zinegotzia den Andoni Atxega San Sebastian jaunak dimisioa aurkeztu duela eta, beraz, une honetatik aurrera ez dela udal honetako zinegotzia.

**BIGARRENA:** Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatuko zaio EAJ-PNV alderdiaren zerrendako hurrengo hautagaia den Josune Urkola Larrarte andrearen zinegotzi izendapena egiteko dagokion kredentziala luzatu dezala, kontutan izanik honek egin duen aitorpena esanez zinegotzi kargua hartzeko legeak ezarritako bateraezintasun arazoiren batean sarturik ez dagoela.”

**Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:55ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.**